

JAKIN

LEHEN KARLISTADA

Pentsaerak eta erakundeak. — Ekonomiaren arazoa garai hartan. — Euskaldunak fueroen aurrean. Legearen aldetik nola ikusten zituzten fueroak euskaldunek. Gerlaren hasieran alde bakoitzak nola interpretatzen zituen. Deretxoaren aldetik fueroen muina zertan zegoen. — Euskal Herriko eliz-barrutien bizitza (1836-1839). — Txaho Zuberotarra eta lehenengo Karlistada. Zenbait izkriburen berri. — Historiaren batasun-aria.

IGARA. SEBASTIAN INSAUSTI. JOSE IÑAZIO LASA. PIO MONTOYA. FEDERIKO ZABALA.

NOTA LABURRAK

Euskal kulturari buruz. — Demokraziak erreboluzioa hilobiratzen duanean. — Made in Israel. — AMA LUR eta gogoeta bat.

KRONIKAK

Egunean eguneko borroka... .. MANEX ERDOZAINCY-ETCHART
Euskal gaztedia tunel ilun batean ALEJANDRO OYARZABAL
Baroja ta Epikuro... .. MIKEL LASA

AGIRIAK

Euskaltzaindiaren agiria.
Giza-eskubideen agiria, abogadu gazteek.

ESKUTITZAK ETA IRITZIAK

Andoni Urrestarazuk Zuzendaritzari.
Zuzendariaren erantzuna.

LIBURUAK

EUROPA.—Jakinlariek.

10 saiakera interesgarri Europear Alkartasunaren gain.

FILOSOFIAREN KONDAIRA I.—Jakinlariek.

Filosofiaren Kondaira osoa euskeraz eman nahi luken bildumarengan lehen zenbakia.

JAINKOA.—Kristau Fedearen Sustraiak.—L. Villasante.

Sinismenaren zergaitiak eta oiñarri beharrekoak. Teodizearen argitan.

LAU EBANJELIOAK.—Mendizabal-Goitia.

Goxoki ta herrikoï emanak. Goitia eskritulariaren ohar baliotsuekin.

EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.

Euskal Verboari buruz gaurdaño egin den azterketarik sakonena ta garbiena.

LAS 7 LECCIONES DE EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.

«Euskal-Aditza»-ren osagarri eta laburpen argigarria.

ELORRI.—Bitoriano Gandiaga.

Olerkiak. 1964-ko «Jose Antonio Agirre Saria», azken lau urteetako euskal liburu onena bezela saritua, alegia.

EUSKERA.—Iñazio Omaetxebarria.

Gure hizkuntzaren azterketa bat, euskera irakasteko egia.

10 %-ko deskuentoarekin hartuko dituzte liburuok JAKIN'en arpedunak.

ESKATU: Dirección de JAKIN - Arantzazu - Oñate (Guipúzcoa)

ARKIBIDEA

LEHEN KARLISTADA

J. I. LASA: Pentsaerak eta erakundeak	3
J. MUGICA: Ekonomia tarteko zelarik	11
F. ZABALA: Euskaidunak Fueroen aurrean	13
IGARA: Txaho Zuberotarra ta lehenengo karlistada	18
P. M. MONTOYA: Historiaren batasun-aria	23
S. INSAUSTI: Euskal Herriko eliz-barrutien bizitza	27

NOTA LABURRAK

Euskal kulturari buruz. — Demokraziak erreboluzioa hilobiratzen duanean. — *Made in Israel*. — **AMA LUR** eta gogoeta bat.

Ricardo ARREGI. Jose Ramon BELOKI. Karlos SANTAMARIA.
Joan Mari TORREALDAY

KRONIKAK

MANEX ERDOZAINCY-ETCHART: Egunean eguneko borroka .	36
ALEJANDRO OYARZABAL: Euskal gaztedia tunel ilun batean	44
MIKEL LASA: Baroja eta Epikuro	50

AGIRIAK

Literatura euskeraren batasuna	53
Giza-eskubideen agiriaren XXgn. urtea ospatuaz	55

LIBURUAK

ANDONI LEKUONA: Biharko apaizak	57
--	----

ESKUTITZAK ETA IRITZIAK

ANDONI URRESTARAZU: Zuzendaritzari	60
JOAN MARI TORREALDAY: Zuzendariaren erantzuna... ..	62
JULENE AZPEITIA: Xabier Kintanari eta irakurleei	64

OHARRAK

JAKIN

ZUZENDARIA: JOAN MARI T... EALDAY
ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARREN ... ARGITARATUA

12 URTEA — 33 ZENBAKIA — ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARREN ARGITARATUA — AZILA-ABENDUA

LEHEN KARLISTADA

Gaurko Euskal Herriaren problematika ez dago behar bezela ulertzerik gure emeretzigarren gizaldiaren azterketa sakon bat egin gabe. Ta emeretzigarren gizaldian, batez ere karlisten lehendabiziko gerratearena. Orduan hasi baizen molde modernuetan euskal problema planteatzen. Adibidez, fueroen izaera zertan dago? Zentrismoaren kalteak. Euskaldunen baserritasuna. Kaletarrak eta baserritarrak, etab., etab. Gaur eguneko berak, beste era batera bederik ere.

Gertaera haietaz galdera asko planteatzen da, beraz. Karlistak defenditzen zutena, zer zen? Agirikoa ta izkutukoa, noski. Batzuek diotenez, beltzak euskal burgesak ziran, goraka zijoan indarra; ta karlistak, atzerakoiak, baserritarrak. Hala ote? Erregea bai edo ez, fueroak bai edo ez, azaleko itxura zela diote beste batzuek, ekonomi borroka bat zebilela azpitik, librekanbioa ta protezionismua, merkatu zabala edo autarki gisako zerbait. Egia ote?

Herriak gorde nahi zuena, fueroa omen zen; erregearen edo erreginarean aukerak ez omen zuen hainbesteko garrantzirik. Euskal Herri gehiena, karlista bezala azaltzen da. Erregearen eta Jainkoaren defentsa, bat egingo da. Jainkoaren eta Euskal Herriaren defentsa, bat egingen da. Besteak, beltzak, euskaldun gaiztoak dirala esango da, Jainkoaren eta Euskal Herriaren etsaiak hain zuzen. Zer egia bontan?

Apaizak, karlistak bezala azaltzen dira gebienetan. Batzuen iritzia da euskeraren eta fedearen zaletasuna bat egin zutela, erderaren bitartez liberalismoa, aurrerapena eta horregatixe fedearen arriskuak errezago sar zitezkealakoan.

Gertaera haiek ez ditugu behar bezala ezagutzen, eta, hala ere, gure solasetan maiz erabiltzen ditugu. Komeni da, beraz, saiaketa batzuk egitea gertaera haien muina abal bezain ondo ikusi ta ulertzeko.

Hortarako, JAKIN-ek zenbaki hau argitaratzen du, karlisten lehendabiziko gerrateaz, lan interesgarrien bilduma bat. Egin ditugun galdera guzien erantzuna ez da, noski, hemen agertuko. Halarik ere, hasiera bat izanen delakoan gaude. Aurrera ez dago egiterik, atzera erreferatu gabe. Orduan planteatutako galderak, oraindik konponketa gabe daudenez, eta orduan Euskal Herriarentzat idiki zen krisiak amairik gabe jarraitzen duanez, jo dezagun zuzenik historiaren iturrira.

J A K I N

Pentsaerak eta erakundeak

JOSE IGNACIO LASA'K

1833-ko agorraren 29-an il zen Fernando VII-gna. Hiru urteko alaba bat (Isabel), Maria Cristina bere alarguna, eta anaia bat, Karlos Maria Isidro printzipea utzi zituen. Hil aitzin, emakumeen erregetza debekatzeko zuten legea («ley sálica») deuseztu zuen eta horrela bidea garbi utzi. Erabaki nuen asmoa argi zegoen argi: bere alaba Isabel (Isabel II), ama ordezkotza zuela, sar zedila Espainia gobernatzera. Fernando VII-gnaren anaiak ere, ordea, Karlos printzipeak alegia, Espainiako Alakia zuten gogo. Kinka huntan bi taldetan zatitu zen Espainia: Isabelen alderdikoak batetik, isabelino, kristino, liberal edo «beltzak». Eta karlistak edo «zuriak» bestetik, Euskal-probintzietan, edo hobe, Euskal-Herrian (Naparroa ere hunen baitan sartzen dut), ene ikusiz, sinbolo bat besterik ez ziren errege-presuna hauek, bi ideialogi ezberdinen sinbolo: klase ikasiak, herri azietako jendeak gehienbat, Frantziako soldaduak ereindako ideia edo joera rebolezionario eta aurrerakoiak onhartzen zituen. Bigarrenak, aldiz, tradizio-baliogoak gorde nahi zituzten inolaz ere: erlijio, ohitura, fuero, absolutista-ideiak. Joera edo fronte biak akor ziren Monarkiarekin, Lehenengoak errege edo «erregin» konstituzional bat nahi bide-zuten, korteen menpeko edo herri-representatzaile. Bigarrenak, berriz, «errege absoluto» bat eskatzen zuten, jaingo- seme edo. Bigarren talde huntan zeuden, ene gardiz, apaiz eta erlijioso gehientsuenak. 1820-gn. urteko konstituzionalistek, Frantziako Matxinadari jarraiki, eleiz-gizonen askatasuna deuseztu, edo gutxienez mugatu, nahi zuten heuren kontrako legeekin. Horregatik beren begiak Karlosengan jarriak zeuzkaten, erlijio-baliogoen eta fueroen gordetzea adierazten baizuen hunek.

FUEROEN IZAERA ETA SORRERA

Pribilejio edo esenzio dira fueroak. Gure huntan, zera dira: Espainiaren agintepean Euskal-probintziek zituzten esenzio eta askatasunak. Nola sortu ziren, ordea, fuero hauek? Agiri denez, honoko hau bide-da

esplikazio: Gipuzkoa ta Araba Kastillako Alkiari batu zitzaizkion «berengogoz» 1200-ean. Batze hunek, noski, bere baldintza ta elkarrenganako bete-beharrak izango zituen. Ta baldintza hauen agiri bezela pakto bat, nahiz idatzia nahiz ahozkoa, egitea zen bidezkoena. Baina hona kasoa-ren kurioxa: ez da oraino dokumento edo baldintza-agiri hori aurkitu. XV, XVI eta hurrengo gizaldietan egitekoak eta eginahalak egin zituzten Junta Nagusi ta Diputazioek (diru bidez ere) agiri horrekin topo egitearren, baina... Beti izandu dira, noski, sasi-dokumentoak sortu dituzten gizon biziak, baina gaurdaino ez dugu agiri hori ezagutzen. Utz dezagun, hala ere, arazo hau, kasu huntan ez zaigu hain garrantzitsu gertatzen-ta. Espainiako beste herrientzat gogoz-kontrako ziren askatasun hauek horrenbeste gizalditan irauteak, argi ta garbi agertzen digu ba zela faktoren bat pribilejio hauen oinharri. Gainera, Espainiako Erregeek ahuntzetan onetsi ta baieztu zituzten askatasun hauek.

ASKATASUN ZENBAIT

Gipuzkoako fueroetan garrantzitsuenetakoa, Kastillako erresumek ordaintzen zuten kontribuzio zuzenetik libre egotea zen. Jakin ba dakigu-ta, kondaira lekuko, fueroak bizi zireino, ez zela kontribuzio hau ordaindu. Kontribuzioa neurri dexentekoa izaki, Espainiako Aziendak ez zuen, noski, kobratzea ahaztuko, baldin hortara eskubidetua egon balitz.

ERRENTA GELDIA

Gipuzkoarrek ez zeukaten, Gorosabelek dionez, edozein janari-kla-se edo gauzen sal-erosketa debekatua, Kastillako erresuma-barnean gertatzen zenaren kontra. «Estanco» deitzen zitzaion debeku huni, ta hau zen hau nazioaren errentarik garrantzitsuenetakoa. Eta Gorosabel berak dionez, portuges bat izan zen pipar-minaren «estankoa» jarri nahi izan zuen lehenengoa (Diego Acosta Meneses bere izena), Erregearen gobernuarekin eginiko kontrato batez baliaturik. Hortarako beharrezko zen baimena eman zuen Erregeak, eta Alonso de Osuna izandatu arazoa ongi burutzeko. Etorri zen hau Donostiara, hemen baizegoen orduan Korrejidore ta Diputazioaren egoitza, eta erabakiak hartzen hasi zen. Diputazioak kontra egin zion, noski. Baita eskatu ere ez zezala arazoa burutzeko erabakirik hartu, alik eta Goi-gobernoak bere azken-hitza eman zezan arte. Diputazioaren arretari esker, lortu zen azkenean «estanco» haren debekatzea. Eta bando bat argitaratu zuen,

alegia, Probintziko ateetatik pipar-mina sartzea debekatuaz, Errege-erabakiak ezartzen zituen kastiguak, bide batez, gogoraturik. Orduan Erregearengana jo zuen Juntak, kontrafueroaren errepresentatzaile, eta «estankoa» agintzen zuen agiria deusezteko eskatuaz. Ordutik izkutu zuen Gipuzkoan jenero hunen «estankoa». Ez da horrelako besterik kasurik ezagutzen 1820-23 konstituzional garaiera arte. Urte hauetan Azienda-lege berdinak ezarri ziren Espainia osoan. Ez gaitu harritu behar liberalak («konstituzionaren» sasi-kumeak izan-ta) fuero-arazo huntan hotz xamar jokatzeak.

«ALKABALEI» BURUZ

«Alkabalak» deitzen den kontribuzioa zen Gipuzkoak Espainiako Gobernoari ordaintzen zion zerga bakarra, Gorosabelek dionez. 1860 aldera idazten du kondairagile hunek, fuero gehientsuenak artean bizirik zeuden garaiean, beraz.

JENEROEN SARTZEA ETA ATERATZEA

Zerau dio Gorosabelek: Juan II-gn. erregeak Gipuzkoako Probintziari eginiko mesede batean, aduana-kontribuzio guztietatik libre utzi zituela bertako biztanleak. Edozein jenero-mota sar zezaketen beren beharretarako. Baita beren soroetako ta industri-fruituak kanpora atera ere; edozein jenero: janari, edari, mueble, kinkail...

Tolosan egindako Gipuzkoako Legeen «Bilduma berritik» hitzez hitz hartuko ditugu zenbait zati. «Los vecinos y moradores de la Provincia, observándoseles en todas partes el Fuero y Privilegio de no deberse pagar derechos algunos de portazgos, carreterías, ni otros de las mercaderías propias, que se introducen en los reinos, por mar, y por tierra... en observancia del Fuero antiguo de la Provincia: Ordenamos y mandamos, que los vecinos y moradores de la Provincia no paguen derechos algunos de aduanas, ni carreterías, ni otros que no se hubieran acostumbrado pagar por las mercaderías, que introducen en estos reinos, por mar y por tierra...» (Tit. XVIII, Cap. VIII). «Ordenamos y mandamos que para que haya razón y memoria de la libertad de derechos, de que gozan los naturales, vecinos y moradores de esta Provincia, en orden a abastecerse de todo lo necesario para su sustento, no sólo de los reinos de Castilla, mas también de otros cualesquiera extraños, súbditos y no súbditos a la Corona Real de su Majestad, sin que por manera alguna se paguen derechos de aduana, ni otros». (Tit. XVIII, Cap. X).

ADUANEN ERAIKITZEAZ

Gipuzkoa-barrutian zeuden aduana hauek, eta portu legorrak deitzen zitzairen. Itxasoko portuetatik Kastilla edo Naparroara zinjoazen Jeneroen amarren zaharrak ordain-araztea zen heuren lehendabiziko eginkizuna. Horrela fueroen izpirituarekin adosago zeterrela uste baizuten. Ondo ezagunak dira Felipe VI-gnarekin izan zituzten burrukak, zeren-eta itxasoko portuetara eraman nahi izan zituen hunek aduanak 1717-ko Dagonilaren 31-an argitaratu zuen agindua medio zela. Aduanak itxas-portu eta nazio-mugan ez egoteak zekarzkian eragozpenak frogatu nahi zituen lege hunek. Frogatu nahi zituen, baita ere, Jeneroaren aduanak itxas-portuetan ordaindu ondoren, komertzioa lur-barrutian libreki erabili ahal izateak ekarriko zituen alde onak. Baina ez Gipuzkoa ta ez Bizkaia ez ziren geldirik geratu arik eta delako legea zokoratu ta gauzak lehengo bidera itzuli ziren arte. Gobernu «konstituzionalaren» garaian, 1820-23 urteetan hain zuzen, Espainiako Probintzia guziak berdinduak izan ziren, eta aduana-fueroa pikotara joan zen. «Konstituzional» Gobernoak lur jo zuenean, onhartua izan zen berriro fuero hau. Eta 1841-eko urrilaren 29-an Esparterok, Victoriako Dukeak, fueroak oro kendu zizkion Gipuzkoari, «Monarkiako beste guziekin kidetuaz». Eta portu eta mugetara aldatu ziren aduanak. Gertaera huntan jarri dute askotxok Gipuzkoaren ekonomi-oparotasunaren hasiera, baina aduanak aldatu ez baziren zer gertatuko zen nola ez dakigun... Post hoc, ergo propter hoc argumentoak ez dakit norainoko balioa duen.

SOLDADUSKARIK-EZA

Gipuzkoako fuerotan soldaduskaren esenzioa zen extimagarrietakoa. Gipuzkoak ez zuen urtero edo nohizpehinka egiten zen Ejerzitoaren berritzeko gizonik bihalten. Gipuzkoarrak (eta gipuzkoarrak esatean, Arabar ta Bizkaitarrak ere esaten dugu) ez ziren Errege-ejerzitoan izendatzera behartuak izan. Ta behartu nahi izan zituzten bakoitzean, kontra egin zuen Probintziak.

«Fueroen Bilduma Berriak» (Tit. II, cap. II) zerau dio, gipuzkoar Ejerzitoaren Koronel Nagusiari buruz mintzo dela: «Coronel de toda la gente para los casos militares ha nombrado y nombra ella, (La Provincia) absolutamente sin dependencia alguna, ni necesidad de aprobación o de confirmación Real. Es de tanta autoridad este oficio que no se reconoce sujeción, ni subordinación, si no es a la persona de S.M. debiéndose comunicar los Virreyes, los Capitanes generales y los gobernadores de las armas reales con la Provincia, con su Coronel y con

la gente de ella en todos los casos militares que se ofrecieren por vía de aviso y de advertimiento, y no por orden.

Ongi agertzen digu Probintziaren kondairak: Gipuzkoak ez zuen sekula espainiar Ejerzitoaren berritzeetan, kinta-bidez, parte hartu, Espainiako gainerantzeko erresumek egiten zutenaren kontra. Eta Espainiak fuero-legea urratu nahi izan zuen guztietan, ez zuen Probintziak amettitu ta kontra egin zuen. Eta Espainiak beti aitortzen zuen Probintziaren eskubidea.

FUERO-BAIMENA

Guipuzkoako Probintziak bere fueroei eusteko ta iraun arazteko babesik izan bazuen ukan, pasé-emate edo fuero-usadioa izan zen bortitzena, Gorosabelen mintzoz. Esplika dezagun eskubide edo usadio hau: Goi-gobernoak ematen zituen lege, agiri, dokumento, dekreto ta aginduak oro, Juanta Nagusi edo Diputazioari aurkeztu behar zitzaizkion. Berdin jokatu behar zuen Valladolidko goi-hauzitegiak ere (Gipuzkoako goitribunala) argitaratzen zituen agiri guztiekin.

Gisa huntan egiten ziren arazo huni dagozkion eginkizunak: Erregeak Probintziari dekreto edo lege bat ezarri nahi zionean, Juntak eta Diputazioak xeheki arakatzen zituzten lege hoiek. Ez, noski, bere mamia zuzena zen edo ez epaitzeko, baizik-eta Probintziaren fueroen bat urratzen zuen ala ez jakiteko soilik. Baldin fueroen kontra ez bazegoen, onhartu ta agririan jartzen zen, goi-Diputatuaren izenarekin eta Probintziaren silluarekin sinatua. Baina fueroen bat urratzen bazuen urratu, zokoratu egiten zen legea, ta jakina, ez zen argitaratzen.

Jakina zaigu, noski, arkeologi hutsa dela egun fueroen arazo hau. Karlista-gerlan fueroen alde eginiko eginahalak oro, hutsean erori ziren. Espainiarrak ez zituzten begi onez ikusten fueroak. Batek ez daukan onura besteek izateak inbirla-edo sortu ohi du, ta...

INDUSTRIA

Ezer berririk ekarri al zion karlista-gerlak industriari? Ezetz deritzat. Gipuzkoa ta Bizkaiak garrantzi ikaragarria zuen lehengo gizaldietan ere burdingintzak. Burdina zen, noski, irabazi ugari eta sendoena. Baina zerau gertatu zen: Europako nazioek arlo huntan, labe ta beste zenbait asmakizun ederrekin, aurrerapen txundigarriak egiten zituzten bitartean, euskaldunak (eta espainiarrak zer esanik ez!) tresna ta era zaharrekin jarrai zuten. Era huntan, ezin zezaketan sal-erosketan konpe-

tentzi bat sortu, ez jeneroaren garestiatatik eta ez jeneroaren ontasunagaitik. Karlista-gerla bukatu bezin laister mota askotako fabrikak azaltzen hasi ziren Gipuzkoako bazterretan (Bizkaiakoa ez dut ezagutzen). Aduanak itxas-portuetara aldatzeari erantsi nahi diote zenbaitek industriaren xuxpertzeta berpizte hau. Industri-bizitasun hau munduko giroak eta egoerak esplika dezaketela iruditzen zait, hala ere, neri. Giroaren seme gera gizonak. Arira etorriaz, gerlak gutxi lagundu dezaioketela industri berrien sortzeari, aitortu beharra daukagu. Lehengo industria akabatzea izango da egingo duten gehiena...

KOMERZIOA

Industria ta komertzioá batera ibili ohi dira. Industriari buruz esan duguna bera esan dezakegu komertzioari buruz ere. Gipuzkoak sortu zuen, bere gizon eta kapitalarekin sortu ere, «Compañía de Caracas» edo «Compañía de Guipúzcoa» zeritzana. Berau izan zen komertzio-arloan nabarmenena XVIII-gn. gizaldiaren hasiera arte. Espaniako Estatuaren esku-sartzeak eta burokrazia gehiegiak moztu zizkion egoak eta bere bizitasun-zorna. Ongi esaten zuen Larramendik: «Esta compañía es guipuzcoana, con ese nombre se estableció, este nombre le dio el Rey, y ése es, y no otro, el nombre que merece. Y no obstante la veo desbautizada y con otro nombre. Esta Compañía Guipuzcoana es la primera de España, y la que después sirvió de pauta y modelo a las compañías de La Habana, de Sevilla y Zaragoza La de La Habana mantiene su nombre y está en La Habana; la de Sevilla mantiene su nombre y está en Sevilla; la de Zaragoza mantiene su nombre y está en Zaragoza. Pero la de Guipúzcoa ni ya está en Guipúzcoa, ni mantiene su nombre: ya casi se llama manchega o cortesana. En Madrid está toda la dirección, con sus oficinas todas»

EKONOMI-ADMINISTRAZIOA

Ekonomi gidatua deitu genezaioke herrietako administrazioari. Herri gehientsuenek bere herri-arau bereziak zituzten. Libre zen herri bakoitza. Alkateak edo Kontzejoak jartzen zion gauza bakoitzari bere sal-neurria. Urteoro nor-gehiagoka bat antolatzen zen. Eta gehien eskeintzen zuenaren esku uzten zen zenbait jeneroren kontua: ogi, ardo, olio, aragi, bakallao... Kargu hau bereganatzen zuenak bakarrik, eta ez beste inork, Inguratu ta ornitu behar zituen Janari hoiak. Monopolioa zuen hortan. Janariak eta edariak ez ezik, hunen kontu gelditzen

ziren baita ere labe, tellategi, errota eta abar. Esan dugun bezala, alkateak zuen guzti hunen erantzuna edo agintea. Probintzia ez zen fameli edo sukaldeen neurrian kobratu ere. Denpora pasa ala, galtzen joan zen ekonomi-egitura hauen itzala. Biziki laister, lehenengo karlista-gerlaren ondoren, zeharoraino izkutatu ziren ohiturazko xixtima hauek. Baina ez dut uste gerlak eraginda izkutatu zirenik, toki guzietan berdintsu jokatzeko baizen, arau hauen arabera,... eta bide berriak hasi ziren urratzen.

LEHEN-MAILAKO ESKOLA

Lehen mailako eskolaren lortzea berri xamarra dugu oraindik hemen, eta hemen bezelatsu edonun. Herri-eskolei ekonomi-administratioari gertatu zitzaiona bera gertatzen zaie. Herri bakoitzak antolatzen du bere egitura. Ez Probintzia ta ez Estadao ez zen huntan sartzeko. Nik dakidanez, 1815-ean sartzeko da lehenengo aldiz eskola-arazo huetan Probintziako Diputatu Nagusia. Eta Azkoitiko Juntatan, 1823-ko agorrean, osatu zen lehendabizikoz, lehen-mailako irakaskintza berdindu ta bateratzeko batzorde bat. Eta komisio hunek urrengo urtean onhartu zen araudi bat eratu zuen. Hona bertan agertzen ziren zenbait puntu: Itxuraz bizi ahal izateko beharrezko zen saria eskatzen zen maixuentzat; maixuen alkientzat irautasuna eskatzen zen, ez zitzala Aiuntamentuak bere gogoz alde batetik bestera aldatu, alegia; lehen-mailako eskolentzat goi-batzorde bat eratu zedila, bertako gobernadoreak izendaturiko lagunek osatua. Era huntan, herri-irakaskintza zabaltzen-zabaltzen joan zen eta, bide batez, analfabetoak bakantzen.

Zein postura hartu zuten karlista-gerlan? Ez dakit ezertxo ere. Nere ustez, ez zen lehen-mailako edo herri-irakaskintza izango burrukaren xuxpergarri. Beharbada, erlijioso edo moral-arloa bizitu ta xuxpertzeta izango zen heuren gogo ta desira. Ez baidugu ahaztu behar erlijio-galetan gu baino askoz ere eskolatuagoak zeudela.

HITZ BATEAN

Hitz batean: euskal-karlistak, tradizio-baliogoen zale eta Frantziako soldaduen bidez sartutako ideia berrien arerio izaki, erabat fuero-zale ziren. Eta ez nintzake euskal-liberalak fuero-zale ez zirela esaten ausartuko. Cadizko Konstituzioan inutuak izanta, fueroen etsai izatea zen

bidezkoena, probintzi guzien berdintasuna eskatzen baizuen Konstituzio hunek, baina... Bergarako Elkartean, denak (nahiz karlista nahiz liberal) fuero-zale agertu ziren. Eta handik bi urtera, Esparterok fueroak deuseztu nahi izan zituenean, kontra egin zioten. Gorosabel kondairagileak, liberal eta karlisten etsai bazen ere, fueroak defenditu zituen, eta nola defenditu gainera!

José Ignacio Lasa

J. MUGIKA'K

Ekonomia tarteko zelarik

JAKIN lehen karlistadaren zenbaki hontarako, orduko euskal ekonomiari buruz lan bat prestatzen ari zen, baina betarik ez bukatzeko. Ta hutsunea nolabait betetzeko José Mugicak idatzitako «*Carlistas moderados y progresistas*» liburuaren hitzaurretik zati batzuek argitaratzen ditugu, ekonomiaren arazoa zertan zegoen nolabait bederik ere ikus dezagun.

* * *

Donostia liberaletan finkatu zen, eta liberalak moderatu ta progresistetan bakandu ziranean Donostia liberal progresista izan zen. Hau donostiar buruzagiek konstituzioaren ideia berriak sentitzen zituztelako zen. Donostian bere bulegoak zituzten familia burgesak ziran. Bulego hoiek une berean itsas komerzioko etxeak eta banka lekuak ziran. Asko atzheritik etorriak ziran eta besteak Espainiatik, baina Euskal Herritik kanpokoak ziran. Aurrerapen eta aberastasun handia izatera heldu zen portuaren babesean, familia hauek hemen muntatu zituzten beren negozioak, Europako portuekin har-emanak izan zituzten, beajeak egin zituzten eta atzherriko ikastetxetara bidali zituzten bere umeak ikasketak egitera. Ez dago ukatzerik, beraz, gizon hauek orduan Europa guztian indarra zuten ideiak bizitu izatea. Ideia hauek indarra batez era Frantzia zuten eta donostiarrak har-emanik handiena Frantziarekin zuten.

Bainan ez zen izan modan zeuden ideia hoienganako maitasuna politikan hartu zuten posturaren arrazoi bakarra. Postura hori ekonomia hutsean ere finkatzen zen. 1823-guz. geroztik Donostiak ekonomiaren krisi latza bizitu zuen, portuak ez baizuen apenas lanik egiten. Eta ez zuen lanik egiten gobernuak itsas handitik eta Europako beste portuetatik Espainiara zetozten merkantziei Donostira zuzenduak etor-

tzeko eragozpen eta oztopo gehienak jartzen saiatzen zelako. Estaduaren joeraren sustraia zerean zegoen: Espaniako aduanak ez zeuden nazioaren mugetan, bere Fuegoetatik hiru euskal probintziak atzerritik, zergak ordaindu gabe, bertako biztanleen konsumorako nahi zutena ekartzeko eskubidea zuten. Horregatik estaduak bere aduanak mugan ez Ebro-n baizik jarri behar zituen. Aduanak honela egotera-koan Euskal Herrira nahi zen guztia ekartzen zen estaduaren kontrolik gabe eta errez zen bertatik Espaniaren barna kontrabandoan merkantzi hoiek pasatzea.

Donostiako negozio-gizonek ba zekiten beren enpresen iturria zen portua ez zela normal lanean berriro jarriko euskal probintziak aduanen sistema jeneralean sartzen ez ziran bitartean. Bainan hori defenditzeak fueroaren bitartez Euskal Herrira zergarik ordaindu gabe sartzeko zegoen eskubidearen kontrajartzera bultzatzen zituen donostiarrak. Horregatik Espaniako politikaren mekanikan Euskal Fueroak aldatu egin behar zirala nazioaren lege konstituzional berriak beste alderditan bezala betetzeko moduan izan zedin defenditzen zuen alderdi politikora jo zuten, eta alderdi hauen artean gogorra progresista zanez honengana jo zuten azkenean.

Gipuzkoa arazo honi buruz Donostiaren kontrakoa zen, hau da, Fueroa alda ezina zela ta lege berriak fueroaren kontra bazeuden ez zirala bete behar zion, eta Gipuzkoaren goberna-eran Donostiaren interesak menperatuta gelditzen ziranez, Donostia poliki poliki fueroen mekanika politikoaren orde zazio guziarenaren bila abiatu zen, honek bere aberastasunerako abantaila gehiago zekarzkiela uste zuelako.

Eta gauzarik interesanteena zera izan: donostiarrak ziotena egia gertatu dela. Donostiarrak ziotenez euskal probintziak estadu guztia- ren sisteman sartzean Euskal Herri guztian industri-sortzea girotuko zela. Ta uka ezin ditekeana da honela gertatu zela. Izan ere oraingo euskal industri gehiena—dena esan diteke— probintzi hauek Estadu guztia- ren aduanen menpean jartzetik datorrela.

Politikaren erromantizismo beroenean batere erromantikoak ez diran gaiegatik egin zuten gerla; eta Aduanak Espainiaren mugan egon behar zuten edo ez. Liberal moderatuek, erreformaren aldekoak izanez puntu hontan, fueroa ezin zitekiela aldatu zioten. Eta liberal progresistak, aurreratuenak, hemen ez ziran manchesterianoak ezta ere librekanbio-zaleak, lojikoak izango zen bezala, protezionistak eta aranzelaren defentsoreak.

Euskeraz: Rikardo Arregik

Euskaldunak Fueroen aurrean

FEDERIKO ZABALA'K

**LEGEAREN ALDETIK NOLA IKUSTEN ZITUZTEN FUEROAK EUSKALDU-
NEK. GERLAREN HASIERAN ALDE BAKOITZAK NOLA INTERPRETATZEN
ZITUEN. DERETXOAREN ALDETIK FUEROEN MUINA ZERTAN ZEGOEN**

XVIII-gn. gizaldiaren arinkeriaz idatzi dena idatzi eta esan dena esan bada ere, ene iritziz, aldaketa biziki funtsezkoak ditu gizaldi hunek bere baitan. Giza-pentsakeran eraberritze sakona gorpuztu du XVIII-gn. gizaldiak.

Kondaira-aurretik hasita positibuki jokatu du gizaldiaren eboluzioak. Direla hogei mila urte jaio edo-ta gaur jaio ez da, noski, gauza bera. Ez da ere berdin XVI-gn. gizaldian jaiotzea, nahiz guregandik hain gertu egon.

Fisiologi-aldetik hutsa edo ezer gutxi aurreratu badugu ere, siko-logi-ezberdintasuna arras sakondu da. Gutaz liferente da oso antzinako gizona, Erdi-Aro eta Renazimentokoa liferente diren bezala. «Buruari ta bihotzari dagokionez— dio Teilhard de Chardinek—, Bergsonek ez zuen agian Platonek haina balioko. Baina bi mila urte geroago bizi izan denez, Platonek sentitu eta barrundatu ezin zitzakeen gauzak sentitu ta ikusi ditu Bergsonek». Hona, bada, eboluzioak gizadiari erantsi dion ezberdintasun sakona.

Urrats garrantzitsu da oso gizaldiaren eboluzioan, aurrerabidean, XVIII-gn. gizaldia. «Izan ba dira teknika-aurkipenak (sua, nuklear-arloa...) —dio Teilhard de Chardin berak— eta ba dira baita ere adimen-argitasunak (gizonaren eskubideak, kosmogenesaren izatea...)».

«Adimen-argitasun» horren une bat dateke XVIII-gn. gizaldia, ta huna hitz batean bere mamia: «askatasuna».

Edozein giza-arazotan bezala, bi ideia-moten arteko drama bat aurkitzen dugu, dialektika-joko bat, elkar-jotze bat, kontra-egote bat: Renazimento-joera batetik, Agintariaren ideia absolutoa bere baitan delako; eta joera berria bestetik, indibiduoaren askatasunari eutsiaz. Drama hunen fruitua eta azkena Frantziko Matxinada ta bere ideien garapena izango da.

Aitaturiko dialektika-joko ta ideia-burruka huntan, nola zeuden gure Fueroak? Zein joera zuten bere baitan?

Erdi-Aroa zehar sortzen dira sortu Fueroak (Euskal Herriko usadio ta ohitura dira, hitz batean), eta renazentista-absolutismoa Europaz jabetzen den urteetan gorpuzten dira Fuero hauek Euskal Herrian.

Hala ere, renazentista-ideien kontrako punta dira euskal-Fueroak. Erregeak jainko ziren Estadu absolutu haien tartean (Luis XIV-gnaren «Ni naiz Estada»), politiku-mirari gertatzen dira Fueroak.

Gero, XVIII ta XIX-gn. gizaldietan, gure Fueroen ideia demokrati-koen aizea zabaltzen hasten denean, deuseztu ta erori egiten zaizkigu Fueroak. Nola esplika fenomeno hau?

Paradoja hunen benetako zioa aurki nahi badugu, prexiko beharrezko zaigu XVIII-gn. eta XIX-gn. gizaldietan gure Herrian gertatzen zena arakatzea.

XVIII-gn. gizaldiko euskaldunek fueroekiko ideia edo ikuspegi klasikoa zuten. Larramendik eman dezaiguke ikuspegi hunen mamia. 1200-gn. urtean Gipuzkoaren egitura (Kastillarekin konparatuta) batasun libre baten egitura da Larramendirentzat. Fueroen mami diren ohitura ta usadioen begirunea oinharri dela eta pakto edo elkarte baten bidez eginiko batasuna (nahiz elkarte hori ixila izan eta ez espresuki egina). Fueroak zinegiteke (hots: paktoa berritzeke), ezin zitekean inor Gipuzkoa edo Arabako Errege izan edo-ta Bizkaiko Jaun.

Fueroei dagokienez, lehengo gizaldietako ideia berak gordetzen ziren, beraz. Baina aldi huntan beste mugimendu bat sortzen da gure Herrian. «Azkoitiko Jauntxoek» gidarituriko ta Europako aizeetara zabalduko ginduan adimen-mugimendu bat. «Jauntxoek» eta «Amigos del País» sozietateak duten garrantzi gailena ezin dezakegu uka, noski, jakintza zaharraren funtsa ziren filosofi-legeen deusezte bat direnez, eta zientzi berriarekiko gure Herriaren ate-zabaltze bat. Gero Bergarako Seminarioan azi ta eziko zen jakintza berriari ate-zabaltze bat. Ez zuten «jauntxo» hauek, Fueroei dagokienez, ideia apartekorik.

XVIII-gn. gizaldiaren azkenean, konbenzio-gudan hain zuzen, aldaketa nabarmen bat zertzen da gure kondairan. «Jauntxoek» ondorengo belaunaldiak politika-arlorra aldatu zituen askatasun-ideiak. Jakina denez, kinka huntan, Karlos IV ta Godoyk gerla egin zioten Frantziko Konbenzioari. Kontuan har dezagun erlijio-gerlen arreba dela gerla

hau: ideia gerla, hain zuzen. Gerlaren tasun berezi hau izan ote zen izan Irun, Ordizia ta Donostia errenditzearen zio? Baietz derizkiogu. Politika-arloan bederen, Gipuzkoako Gobernoak eta Frantziko erasotzaileek ikuspegi demokratiko berdintsuak zituzten. Erljio-arazoan, ordea, biziki handia zen ezberdintasuna, baina politika-kontuan nabarmena zen bien kidetasuna. Lehen aitatu uriak errenditu ez ezik, Gipuzkoako Diputazioak eta gero Goijuntak pakea josi-gogo du Frantziarekin, Karlos IV-gnari kasorik egiteke. Gipuzkoaren bereiztea zen Diputazioak eta Juntak nahi zutena ta ez Frantziarekin batutzea. 1200-gn, urteko legea berriz ere.

LIBERALAK ETA KARLISTAK FUEROEN AURREAN

Ikusi dugunez, XVIII-gn. gizaldiko bigarren zatian gure Herriak aurrebide egiazko bat gorpuzten du, «Amigos del País» elkarteari eta «Azkoitiko jauntxoei» esker. Kontrako aldea ikusiko dugu orain; bideak, gora ta aurrera egin beharrea, beheara ta atzera egiten du. Atzerapen hau, hala ere, ez da gure Herriarena soilik. Napoleon menderatu ondoren, Elkarte Santuak (Santa Alianza) matxinada-urteak ezereztu nahi izan zituen, halajaina, eta gerla-aurreko gidaritzia absolutuetara itzuli berriro.

Fenomeno hunek tasun oso nabarmenak ditu gure artean. Ikusi dugunez, XVIII-gn. gizaldiaren azkenean, aurrerapenaren aitzinean agertzen zaigu gure Herria. (Espainia osoak baino Enziklopediaren harpidedun gehiago zituen Gipuzkoak bakarrik).

Izpiritu moderno ta ideki hunek 1820-1823 urte liberaletara arte irauten du. Urte hauetan hasten da izpiritu hau etsaiaren aurrean makurtzen, «Apostoliko» -en ohinetan lehenengo ta Karlisten ohinetan gero.

Zein oinharri ditu gertaera hunek? Fueroak eskierki. Izpiritu atzerakoi hunek bere egoitza gure Herrian jarri bazuen jarri eta sei urteko karlismo-gerla gertatu bazen, Fueroak izan ziren guztiaren kausa.

Liberalek, 1820-an Espainiaz nagusitzean, kendu egiten dituzte Fueroak. Espainiako beste Probintziak zuzentzen dituen Konstituzio berak zuzendutako Probintzi soiletan bihurtzen da gure Herria. Erantsi huni konbentu ta monasterioen deuseztea, eta Fuero-arazoa ta erligio-arazoa batu ta nahastu egiten dira. Eusko liberalek ez zuten Fueroak defenditzen asmatu edo ez zuten defenditzerik nahi. Bestalde, eusko liberalek ez zuten heurek gogo-zuten demokrazi ta askatasun-izpiritua Fueroetan barruntatzen.

Liberalentzat, Frantziko Matxinadaren uniformista-printzipioetan eta Adam Smith-en utilitarismoan eskolatuak izaki, anakronismo huts ziren

Fueroak. Frantziko Matxinadaren eta Kartesianismoaren razionalismoa-ekin uztartu ezin zitekean Erdi-Aroko anakronismoa. Beste nunbaiten esan dudan bezala (1), pragmatismoaren eta razionalismoaren tartean, derrigorrez ezabatu behar ziran Fueroak liberalen eskuetan.

Horregatik, ideia berrien kontra zeudenak (eta gero karlista deitu zirenak) altxa ziren Fueroen alde, nahiz-ta Fuero-lege haiek absolutismoaren kontrakoak izan. Horrela, bada, karlisten hirukote nagusia Fueroek, Monarki zaharrak eta Erlijioak osatzen zuten.

Hunek esplikatzeko bide-du euskaldun gehienak karlismoaren alde burrukatzea ere. Fueroen arazo huntan funtsezkoa izan zen 1820-tik 1823-ra bitartean liberalek urratutako bidea.

Lehenengo karlista-gerla lehertu aitzin eusko-liberalen barnean aldaketa nabarmen bat lanitzen da. Gipuzkoari so, bi talde bereizi ditzakegu: Donostiako liberalak, batetik; eta probintziakoak, bestetik. Donostiako liberalak, komertzio-interesak medio, Fueroen etsai izan ziren beti. Probintziakoak ere hala izan ziren 1823-ra arte; gero erabat Fuero-zale bihurtu ziren. Donostiakoak liberal aurrerakoien tartean zeuden. Besteak, berriz, erdi-liberaletan. Azkeneko hauek zabalduko «Pake ta Fueroen» kanpaña, erabatekoa gertatu zen gerlaren amaitzeko ta Bergarako Elkartearen osatzeko (2).

Hala ere, ez haiek ta ez hauek ez zuten Fueroen mamia ikusten asmatu. Fuero-zaleentzat, nahiz karlista nahiz erdi-liberalentzat, lege ukitu-ezina bilakatu ziren Fueroak. Fueroak, edozein kinkatarata jartzen diren zer biziak izanik, gauza hil eta itxi bihurtzen dira. Frantziko Matxinadak planteaturiko arazo berri batzuentzat zahar eta mami-gabeko gertatzen ziren legeei eutsi nahi ziren jotake. Agirian zegoen egon gure munizipioen berritu-beharra. Agirian zegoen agirian, baita ere, Justizi-administrazioaren eraberritu-beharra. Eta abar...

Fueroen tasun funtsezkoen bat ahaztu zuten hauek inolaz ere: Fueroak konstituzio politiko ideki, zabal, zirela, Inghaterrako Konstituzioaren araura. Hiru Probintzietako Junta Nagusiak araudi-Junta ziren, Deretxo modernoan hitz hunek duen zentzura, hots: nahi zutenean alda zezaketen Fueroak, hortarako Fuero hauek jartzen zituzten baldintzak bete ezker. Eta horrela Gipuzkoako Fueroetan, aldaketa eskatzen zuten Junta Nagusiak ezin zezakean aldaketa hori ontzat eman, baizik eta prexiko zen urrengo Juntak onhartzea.

Deretxoan, ez ziren Fueroak Euskal Herriko usadio ta ohitura baizik, Lege bihurtutako usadio ta ohitura. Fuero hauen gain-jantzia edo

1.—Federico de Zabala: «Gorosabel y la generación fallida» La Voz de España'n.

2.—Euskal erdi-liberalak, karlista-gerlan, Junta bat osatu zuten Baionan, Conde de Villafuertes ordiziatarra buru zutela. Ahaleginak egin zituen Junta hunek Fueroel eusteko.

forma, edozein Legerena bezalakoa zen. Bere mamia edo ardatza, alde, ohitura-deretxo batena. Herri ber-berak antolatu ta landutako Deretxoak zen, bere eguneroko bizitzatik jaioa, eta ez Errege edo Nagusi batek emana. «ius» zen, ez «gratia».

Deretxo edo «ius» hau Nagusiak onhartua zen eta onhartzeke ez zuen Erregeak edo Jaunak (Bizkaian) batere aginterik.

Onhartze hunen bitartez lokarri presunal bat ezartzen zen Errege edo Jaunarekin. Baina, Erregearen aginte-ordez Herriaren agintea nagusitu zenean, ausi egin zen lokarri hau. 1939-gn. urrileko Legeak markatzen digu aldaketa hau. Monarkiaren konstituzio-batasunaren menpe gelditzen dira Fueroak. Presunal batasuna Errege-batasun bihurtu da. Eta horrela «ius» izateari utzi zioten Fueroek, «gratia» bilakatuaz (onhartzen zuenaren menpe beti). Handik urte gutxitara gertatu zen bezala.

Federiko Zabala

Euskeraz: Iñaki Beristainek

Txabo Zuberotarra eta Lehenengo Karlistada

(Zenbait izkriburen berri)

IGARA'K

Oso txalogarria da JAKIN-en asmoa. Alegia: Euskal Herrian gertatutako lehendabiziko karlistada sakonki aztertzea.

Alde batetik, lehenengo karlistadaren garaiean hasi zan suntsitzen gure herrian, Europako bazter guzietan bezela, liberalismoaren aurreko mundua. Euskal Herri modernoa urte haietan hozitu zan.

Ekonomiari dagokionez, XIX-gn. mendeko hasiera hartan sortzen hasi zan Bilboko inguruetan batez ere industria berria; eta aspaldiko olei, azkar nagusitu zitzairen. Politikari dagokionez, berriz, urte haietantxe nabarmendu zan Foruen kontrako oldarra: gerra aurretik ere (Baionako eta Cadizko bilkuretan, esate baterako) beltz agertu zan gure Legearen etorkizuna, eta Euskal Herria'ren beregaintasunaren segida. Erlijioaz krisi bera ageri zan; eta Elizak, bestetan bezela, zituen abantailak galtzeko bildurrak eraginda, eskuindarren alderdia aukeratu zuen nabarmenki, eskubidearen eginkizuna jainkogabeen eskuetan utziz. Alvarez Mendizabal'en neurriak bidezkoak ziran, eta guztiz beharrezkoak. Baina 1833-ko erresuma ez zan bat eta ez berdina. Euskal Herriko karlismoa eta beste tokietakoa ez ziran inundik ere berdinak: aski da orduko liburuak irakurtzea huntaz konturatzeko. Hain zuzen ere karlistadaren ONDOTIK hasi zan Euskal Herria lege, hizkuntzaz eta bihotzez erdalduntzen.

1833-ko Euskal Herria eta gaurkoa ez dira batere antzekoak. Hiriburuak txikiak ziran: Bilbo bera (Unamunoren izkribuak lekuko, nahiz gure filosofoa geroago sortua izan) herriska-kutsuak markatua zan. Areago Donostia, murru artean sartua. Iruña, Nafarroa guzia bezela, gainbehera zijoan, aspaldidanik bezela. Bizkaiko miak berak ez ziran ausarki lanean ari, Foruak ez baitzuen uzten burdina libroki Bizkaitik atera eta nun-nahi saltzera.

TXAHO ZUBEROTARRA TA LEHENENGO KARLISTADA

Liberalismoa (orduko «ezkerra») erdaldun zan, eta erdaltzalea (eta hala egon da gure mendera arte); eta Bilbon eta Donostian aurki zitekean, «jauntxo»en artean eta frantsestutako burgesen artean.

Hiritiatik at, eta Euskal Herri guzian, Foruan aldeko sendimendua zan guztiz nagusi: azpian zegoen herria karlista zan, puntuzkoak liberal. Soziologiari dagokionez, Euskal Herriko karlismoa euskalduna zan: alegia, herrian errotua, herri xehearen eta nekazarien alderdia, hizkuntzaz euskaldun hutsa. 1833-an euskera entzuten zan Tafallako eta Lizarrako inguruetan; eta Orduña, Laudio eta Barakaldo gaurko Motriku bezin euskaldunak ziran. Hauxe adierazten zuten oharkabean 1840-ean «Panorama Español» liburu-sortaren egile liberalek, euskaldun karlista batalloi ezagugarri nagusitzat gerra-dei hau jarri baitzuten: «Aurrera mutillaaa» (sic).

Nafarroan bestalde, kutsu hitsa utzi zuten Baztanen eta Borundan lpar-aldetik igesi etorritako euskaldun apaizek. Frintzia-aldeko Euskal Herrian Erreboluzioa frantsesez etorri zan, Euskal Herriaren kontra; «Askatasuna», bertako askatasunen kontra; eta dana bertako apaiz apalen kontra, gainera. Garat-tarrak ez ziran oso elizkoi agertu (huntan Garat-tarrak Txaho'ren aintzindari izan ziran); eta beren euskaltzaletasuna laister iraungi zan Parisko bulegoetan eta Descartes-kerian.

Zein izan zan, giro nahasi hartan, euskaldun karlismoaren kakoa? Eztabaida luzea izan da huntaz, gerrate hartan jokatu zana Euskal Herriaren politika-etorkizuna izan baitzan.

Lekuko bikaina dugu, beraz, Txaho. Eta artikulu labur huntan argi pittin bat egiten saiatuko naiz.

TXAHO-REN IRITZI NAGUSIA

Agustin Txaho Atarratzen jaio zan (Tardets frantsesez); eta Zumalakarregiren izenak erakarririk, Nafarroara igaro zan 1835-ean, ormaiztegiar buruzagiaren gorenaldian beraz. Karlista gerratea eta euskaldun gerrilleroak zuzenki ezagutu zituen. Txaho, bestalde, liberala eta euskalduna zan ezker, oso interesgarria zaigu bere iritzia; euskaldun liberalak erdaltzaleak baitziran eskuarki, eta Zumalakarregi «hiltzaile» aren etsai porrokatuak.

Txaho, halere, erreboluziozale izanagatik ere (1848-ko ezkeraldian, postu gorenetan ibilli zan gure zuberotarra) karlisten ALDE agertu zan bere «Voyage en Navarre» liburu irakurgarrian. Entzun dezagun: «Les Hauts Navarrals (Nafarroa Goraleko nafarrak, Baxenabarrekoak barne

sartu gabe) et les Cantabres (orduko hizkeraz Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak «Cantabria» osatzen zuten erdaldunen esanez) sont aujourd' hui en armes de l'autre côté des Pyrénées POUR DEFENDRE, CONTRE LES IMPERIAUX DE LA CASTILLE, LEUR NOBLE INDEPENDANCE ET L'INDIVIDUALITE DE NOTRE RACE primitive et solaire, sous le COMMANDEMENT D'UN CHEF librement élu, ZUMALA-CARREGUI, et sous le DRAPEAU NOMINAL d'un Seigneur et Roi, Don Carlos». (91 gn. horr.). Eta beste batean hau dio: «Les sophistes avaient prononcé l'arrêt de mort sur UN PEUPLE HEROIQUE, idolâtre de ses INSTITUTIONS EGALITAIRES ET DE SA NATIONALTE ORIGINELLE: ils ne cessaient d'invoquer contre lui la brutalité du sabre... J'y défendis avec un zèle plus ardent qu'adroit LA CAUSE DE CES HOMMES LIBRES QUI SONT MES FRERES» (7 gn. h.).

Txaho-ren iritzi hau, noski, ez dute begi onez hartu den-denek. Jatorriko euskalduntasunetik euskaldun karlismoa urrundu ala, Txaho-ren iritziatik ere urrundu da. Eta, denbora berean, abertzaleen aldetik ezagutarazi da gehien bat Txaho-ren lekukotasuna azken urteotan. Hau kaokoaren argigarri izan dakiguke.

Mugarri batzuk besterik ez ipintzekotan, Txaho-ren ideiaren alde dator Irujoren «Inglaterra y los Vascos» liburua; eta oso berriki, 1968-ko Apiririlean, hildo berean agerrarazi du zenbaki berezi bat «Enbata» Mogimenduak, Txaho-ren tesiak xehetasunez ezagutaraziz.

Egia ote zuen Txaho-k, beraz? Zein zan 1833-ko euskaldun karlisten helburu eta bultzatzaile nagusia?

Ba legoke huntaz idazterik; eta egin egin beharko litzake. A. Villasanteren ustez, esate baterako, huntan iritzi ofizialei jarraituz, Txaho-ren iritzi horiek zentzugabekeria hutsa dira: «No hace falta decir que su visión de la guerra carlista y de los propósitos de Zumalacárregui, más que a la realidad histórica, se ajustan a sus propias intuiciones de 'vidente'» (Historia de la Literatura Vasca, 160 gn. h.).

Uste dugu, halere, Txaho-ren iritziak bertago dirala Kondairazko egiatik, Villasanteren esan arinak baino. Hau frogatzekotan, orain arte aipatu ez diran idazki labur batzuk irakurraraziko ditugu.

TXAHO-REN ALDEKO IZKRIBU BATZUK

Irujoren «Inglaterra y los Vascos» liburu ezaguna da euskaldun intelektualen artean. Lord Carnarvon, Hay, Viardot, eta gainerakoen iritziak liburu hortan aurki ditzake irakurleak; eta noski, Txaho-ren aldekoak dira.

Besterik aipatuko dut, beraz.

Oso irakurgarria da, esate baterako, Baionako «Le Phare de Bayonne» liberal kasetak gerrari buruz egunean egunekoa diona. Esate baterako, 1835-eko Garagarrilean, Zumalakarregiren heriotza ematerakoan hau dio: «Qu'on ne s'y trompe pas, le PRINCIPE NATIONAL de la guerre est détruit; reste simplement et à découvert le seul prince absolutiste. Il n'y a plus DE NAVARRE, il n'y a qu'un roi, qui combat la tête nue... La cause PERD CE QUI LA RENDAIT VICTORIEUSE, et ce qui lui donnait outre la force des armes LA FORCE MORALE. Zumalacaregui a entraîné avec lui TOUT UN COTE DE LA QUESTION».

Irakurleak ikus dezakean bezela, iritziz hau eta Txaho-rena ez dira oso desberdinak.

Huna hemen 1856-eko Hoef'er'en «Nouvelle Biographie Générale» izeneko liburu-sorta, XLVI-gn. liburuan, 1.030-gn. horrialdean, Zumalakarregiri buruz diona: «Ainsi mourut LE HEROS DES PROVINCES BASQUES, ADORE DES SIENS malgré sa sévérité et ses accès de colère, admiré même de ses ennemis. Quelque jugement qu'on porte sur la guerre carliste, on ne doit pas oublier QUE LES BASQUES COMBATTAIENT POUR LEURS LIBERTES ET LEURS ANCIENNES FRANCHISES. Ils rencontrèrent DANS ZUMALA-CARREGUI LE CHEF qui leur fallait, et LUI obéirent avec un dévouement sans exemple».

Txorakeriak eta ikusle-keriak ahal dira, beraz, Txaho-ren esanak? Ala egiaren oinarria?

Kontuan hartzekoa da, huni buruz, 1939-an Server Andreak, Lexington-en ezagutarazi zuen ikas-tesia gerrate hartaz. Oinarriztat «Revue des Deux Mondes» dalakoaren albisteak harturik (aldizkari hau gaur berean ere agertzen dala, eta XIX-gn. mendean Europa'ko kasetarik famatuena eta ongienik ikasia zala ez da ahaztu behar), euskaldun karlismoaren azterketa sakon bat egin zuen artikuluetan barrena; eta, Txaho-ren iritzien alde agerturik, hau dio: «Carné se rendait compte, comme Viardot, que LES PROVINCES BASQUES COMBATTAIENT EN REALITE POUR LEURS FUEROS, tout en résistant comme royalistes» (41 gn. horr.). Eta 34-35 gn. horrialdean hau dio: «C'était en Navarre, et dans les trois provinces basques d'Alava, Guipúzcoa et Biscaye que se trouvait la RAISON PRINCIPALE des troubles continuels de la Péninsule: elles étaient des germes de désagrégation dans le corps de l'Espagne. Toujours dans la CRAINTE DE PERDRE LEUR ANCIENNE INDEPENDANCE... Tout d'abord, ELLES NE S'INTERESSAIENT PAS AUX BUTS DU CHEF sous les drapeaux duquel combattaient, mais PLUTOT A LASSURANCE QU'ON LEUR DONNAIT DE CONSERVER LEUR INDEPENDANCE ANCESTRALE».

Euskal herriko karlismoa ez zan bestetango karlismo berbera: euskalduna zan osoki garal hartan.

Euskaldun karlismoa, horregatik, bizi-bizirik zegoen herriaren bihotzean; eta hunen aztarnak dira gaurko Montejurra eta gainerakoak. Hauetan letra izpirituari nagusiturik ere, karlista jendea ez da ohartu; eta aspaldian piztutako suari eusten dio.

Herri guziak laguntzen zuen Zumalakarregi; eta hau baita Zumalakarregik buruzagitzan gogorki jokatzeko hasi aurretik ere: Zumalakarregi Euskal Herrira etorri aurretik altxatu zan Bizkaiara, esate baterako. Zumalakarregi etorri orduko, «lau probintziak» armetan zeuden. Horrelako moimendu zabal eta sakon baten giltzarria (gazteak iskiluak jaso baino lehenago joaten ziran mendira) ezin diteke izan Portugalen bizi zan gizonsko bat. Kakoa besterik zan.

Ezagun xamarra izan arren, bukatzeko, on izango da, nik uste, 1840-ean Balentin Olano gipuzkoar deputatu LIBERALAK egin zuen hitzaldiaren hitz mamitsuenak gogoraztea: «Y entre tantos análisis como se han hecho de la causa de la pacificación, ha de saber el Congreso que LA PRINCIPAL ha sido el haber ido allí el Pretendiente, el haberse casado, el haberse rodeado de gentileshombres... Entonces el país volvió en sí, y dijo: Qué vamos a buscar al otro lado?...

PARA QUE QUEREMOS A LOS QUE HAN VENIDO A MEZCLARSE EN NUESTROS NEGOCIOS? QUEDEMOSNOS SOLOS LOS DE CASA...

Entonces fue cuando se empezó a formar la opinión, la primera idea DE MANTENERSE COMPLETAMENTE VASCONGADOS; Y ESTE JUICIO CRECIO COMO UN REGUERO DE POLVORA... Entonces se empezó a decir: éstos no nos sirven... Entonces, finalmente, se dijo: PUES SOLO LOS DE CASA; y empezó a correr la voz de ojalateros que el Congreso sabe, Y UNA PERSECUCION GENERAL SE LEVANTO CONTRA TODOS LOS QUE NO SON DEL PAIS» (Pi y Margall'en «Historia de España», III-qn. liburuan, 80 gn. horr.). Eta aurreago: «Después de haber defendido a la Reina por seis años... cuando se celebró el Convenio (Bergerakoaz ari da, jakina) me presenté en mi pueblo, ansioso de ver cómo me recibían, atendidos mis compromisos tan graves. EL PUEBLO TIENE 4.000 ALMAS, Y LOS DE LA REINA ERAMOS UNA DOCENA...

Dije a los carlistas: «Olvidemos lo pasado y seamos uno». «Nos uniremos —me contestaron— BAJO NUESTROS FUEROS OBEDECEREMOS a la Reina, y viviremos tranquilos». (Pi y Margall, III, 87).

Txahok xuxen ikusi zuen 1833-1839-ko oerratearen kakoa. Txaho-ren iritzi zuzena zerqatik izan dan baztertua, lardazkatua eta aldrebestua azaldu beharrik ez dago.

Historiaren batasun-aria

MONTOYA'K

Laster Pio M. Montoyak "Intervención del Clero Vasco en las contiendas civiles (1820-1823)" ize-na emanik, liburu interesgarri bat argitarako du. Onerako edo txarrerako, apaizek, gerrate hortan, izan zuten parte-hartzea aztertu eta epaitu nahi du egileak.

Guk, liburu honen aurreneko kapitulotik zati batzuk aukeratu ditugu zenbaki hontarako. Montoya jaunak erakutsi nahi du, esandako asmoaz gain, karlistaldiko eta aurreko eta atzeko problematika, bat bera dela: gehienik ere, gizarte-moldea zerbait aldatzen da, baina izpiritua, ez; gonbarazio eginaz: sinfonia baten, doinuaren estruktura gorderik ere, bariazioak egin oi dira, ezta? Bada, balatsu hemen ere, doinu-aldaketa iduri du gerrate-sail honek, ez besterik.

Montoyak diona; Lehen Karlistada ezagutu nahi bada, lehenagoko aroa, 1820-1823, ere ezagutu beharra dago: urak iturburutik har ditzagun. Horregatik hain zuzen argitaratzen ditugu Montoya jaunaren liburuko atal hauek, historiaren batasun-ari hori erakusteko eta Euskal Herriaren hazia garbiago ikusteko ere.

Zuzendaritza

XIXgn. MENDEA

Marcelino Menéndez y Pelayo Jaunak, XIXgn. mendea historiatzean, zera idazten du: «Herri guzien kondairan ba dira gizakiengan bezain heretsiki patologikoak izenda ditezken garai edo bolarak». (Hist. Hete. VII t. 12 horr., arg. 1932).

Herri espainolaren gaixo edo egoera patologiko honen aztarna eta susmo hau, ezkerreko ta eskubiko intelektualek berdin egiztaten dute. Ortega Gasseten gardiz, Españaiko XIXgn. mendea da «gure etsairik nagusi eta premiazkoena» «mende trixtea, mingotsa eta erakaitza» «huspeko moral-giroa» «gorrotoak, odolak eta bildurrak, trilogi honek menderaturiko gizaldia» «girotutako larritasuna». Salvador Madariagarentzat «aldi asaldaria, nahasia, batere sentidurik gabekoa» da. Balmesentzat: «lehengo gaiztakeria guzien arkigunea, eta oraingoak gaineraturik, desordenu erreboluziozalea, gobernakeria, pandillaje-gogoa, azplakeria, ilunbe eta mixeri-gogoa... beti gehiegikeria batetik bestera, anarki batetik militarakeriara, militarakeriatik anarkira, ahor gure kondaira 1833-ez gero».

Irudia, ikusten danez, patologikoa da. Mintzaera honek (eta ezkerreko ta eskubiko gizon seinalatuek bategiten dute hontan) sendimen eta sineste bat sorrarazten du bihotzean, alegia Lurralde honek gaixotasun larri bat sufritzen duela, eta delirio edo erokeri-izakera dela hain zuzen, Dn. Quijotek sufritu zuenaren antzekoa. Horixe esan bide du behintzat Menéndez y Pelayo jaunak.

«Dn. Quijoteren egunak atzera jaio ziralara ematen zuen, egia bihurturik, sobrare poesi gutxiagorekin, nobelagilla famatu haren asmamenak» (Ibid 121 horr.). Antonio Vallejo Nágera sikiatra iaunak bere «Literatura y psiquiatría» liburuan, eta «la historia clínica de Alonso Quijano» aztertzen duelarik, hau idazten du: «Paranoiaren ezaugarriak nabarmene-na, zoraldi iraukorra, egokia eta bere baitan logikoa da, alegia, deliriozko ideiak ez daudela batabestearen aurka, eta horregatixe paranoiko batengan dena litzakeala zentzuzkoa eta bidezkoa, **baldin idela hoiak premisa faltsuetan oinharriturik ez baleude.**

Sistematizatutako zoraldi hau bai, baina beste hauek ere paranoiaren zantzuak dira: a) deliriozko idela hoiak dagoen oro sinesteko sinestekortasuna; b) nola delirioak hala gogoa; d) moral-sendimenduen iraupena, baina delirio-gaien ondorengo, eta e) nola delirioak hala jokatera». - (44 horr.).

Cadizko Konstituzio-aldakuntzak dirala-ta España zatiturik dagoen bi alderdietan nabaritzen dira ezaugarri berberak.

Alderdi biak, beren idelekin logikoak dira, zaldun ibiltari eta herri-gudu-asmatzaille hauen eginkizunetan ikusiko dugunez. Delirioarekin zer-ikus handia duen bihotz-egoera batek irauten du haien baitan; eta erabateko sinestekortasun batek ere bai beren deliriozko idela hoiak dagoen edozer sinesteko.

«Aitez puzturik buruak, eta bihotzak suminez»... (Hete esp) España-ko XIXgn. mendearen historia trakets eta zoritxarreko hori osatzen duen mugagabeko egite ta desegite, anarki ta diktadura miesa hau hasi zuten». (Hist. Hete. ib. 90 horr.).

Guk Euskaldun Apaizen jokaera ikusi nahi genuke gerturik anai-guduetarik lehenengo hortan (1820-1823), «período rieguista o constitucionalista» delako hortan, alegia.

«gerra zibil izua, atsedenek eta errukirik gabekoa, eta buruzagi erreboluziozaleak, hilketak, ondamendiak, lapurretak ta astakeriak egiten alkarren lehian zebilzkiala ematen zuen» (Hist. Hete. VII, t. 115 horr.).

Pentsatzen dugu interesgarria dela azterketa hau, oraindik itxi gabe dagoela uste baidugu paranoia-garai hori. Herriek, pertsonak bezela, beren lehengo patologikoak, heuren akatsen antzera, ezagutu behar dituzte, berriz hoietan erortzetik gorde ahal ditezen.»

«ENTRE BASTIDORES OFICIALES»

Enbajadoreen eta gobernuen ordezkoen edo bazkunde ofizialen ixilpeko izkribuak dira iturririk garbienak, hoiak dira egiaren urak benekotasun ta argitasun handienarekin azaltzen diran tokiak.

Gure gaia gainezkatzen duen arren, beharrezkoa derizkiogu lehen atal honi. Eta aldi ilun honen terrenoa eta giro psikologikoa hobeago ezagutzeko, Madriden zegoen Gipuzkoa Probintziko ordezkooak, Joakin M. Ferrer jaunak, alegia, Diputadu Nagusi zen Jose M. Zabalarri eginkako idazkiak ezagutarazi behar ditugu.

Epailaren 20-an idazten du:

«Konstituzioa jeneralki onhartua da eta gogo beroz goraldua eta hain ziurki gehienen borondatea azaldu denez gero, **Herri hortan gertu ditek**en edozein saio alperrikakoa litzake, batez ere ordezkoen bidez eratzera eta ospatzera lagundu zuen-eta.

Hala ta quztiz ere, onhartzeko bi ohar egin behar nituzkeala uste dut: lehena, baldin edozein garaitan eta edozein gertakizunez, aurrez ikusia ala ez gertaera hori, deuseztu egingo balitz Konstituzioa, momentu hartatixe konsideratu behar litzakeala Probintzi hau bere **jatorrizko askatasunean**, gaur duen bere oraingo Gobernu-erakin, eta bere jatorrizko Legeekin jarraitu behar lukeala.»

Eraskin baten, eta «reservada» dakarrelarik, zera idazten dio Diputadu Nagusiari Ferrer jaunak:

«Gaitezen begiratuago eta ez beroegiak... esaten didazu 13-ko zure txartel izkutuan, eta nik errepikatzen dizudan bera da, are gehiago bidez okertuxea Ikusten zaitudalako. Inork esan dezaidan beharrik ez dut egoera berri hau, gaintzeko Probintzi guztientzako, **guretzako baino**, hobeagoa dela ikusteko, gure Fuerdoak gozaten utzi dezaiguten kontu eginaz. Sobera da sufritu ditugun erasoketak zuri zerrendan ipini-beharraren eta gure iraun-ezina ere, baldin, aurrerantzean pentsatzekoa zanez, Gabinetek eraso hoiel aurrerapidea ematen bazien. Zorionezko mila suerteek eutsi dute, sorginkeria bidez iduriz, gure hil-zorizko askatasuna, kapritxoak ez beste mugarik ezagutzen ez zuen aginte mugagabeko ta gogor baten erasorik gaiztoenen artean. Ia gure Indarrez gain zegoen diru-sakrifizio bat naiko izan zan beste urteetako «kinta»-ri amor emateko, baina hauzia nola zutik geratu zan, hilabete gutxi barru pausu norren ezdeuskeria ezagutuko genuen; nere iritziz, oker emandako eta okerragoa amaitutako pausua.

Gertutik ikuitzen ditut nik gauzak eta balioz neurtzen ba dakit, eta beste edozeinen ainako abertzaletasunarekin, gertakizun hau dela-ta poztu egin naiz, eta argi onez ikusirik, zu ere konturatu behar zinake, eskuetara etorri zaigun zori hau zinezkoa eta benetakoa izan dela, alegia, Españako gaintzeko herriek pasatu dituzten bidegabekeriak, atsekabeak eta estualdiak pasatu gabe.

Baina esandakorik ez dela zuretzat baliogarri kontu eginik ere, behin nazioaren erabaki jenerala martxan dagoanez gero (erabaki aldakaitza, ene ustez), ez ote litzake zentzugabekoago aurka egitea?

Sinesturik nago luzaro herriaren laguntza, hots, Korporazio handiarena, konserbatzea nekeza dela, eta hauei, gainera, ezin dezaieke beti egia esan, zigorrik gabe, gizon leialak. Arrisku hontan sarturik ere, gure Kongresoaren aurrean nere mihinez (egia) esango nuke, prebistio laburreko zenbait gizonen inprudentziaren kalte-zorian Herria utzi aurretik.

Zorionez amaitu dut nere Egitekoa, neu ere atseginez nago, eta nola lasai bizitzea besterik ez dudan nahi, eta ez besterik irrikatzen mundu hontan, zapaldu ez nazan Gobernu baten mendean (eta behin baino gehiagotan nere Herriaren eskubideak aldeztarren doi-doi ez naiz zapaldu izan gero!), horregatik pozik erretiratzen naiz bizitza pribatuaz gozatzera eta zezanak urrutiagotik ikustera».

Euskeraz: J. M. Torrealdyk

Euskal Herriko eliz-barrutien bizitza

(1836-1839)

SEBASTIAN INSAUSTI'K

Gizonen burruka danez, gudak ez du behinere ondoren onik ekarri. Herriak ondatu, gizonak hil edo zauritu, familiak sakabanatu, eta abar. Kristoren Elizari ere kalte haundiak etorri oi-zaizkio. Agintarien aldetik, gudari talde bateri besteari baino jaramon hobea egin diolako, kristauen artean nahasketa sortu; herrien aldetik berriz, beren goztaiekin zituzten hartu-emanak gero ta zailagoak jarri. Uri nagusietan egoten da obixpo jaunen jar-lekua, eta uri nagusi hoiek menderatu baino lehen gudariek bereganatu dezazkete herri txiki eta lurralde haundiak. Ara orduan zer gertatzen dan: parroko apalz eta kristauekin zituzten hartu-emanak ezin dituztela behar bezela eratu gotzai jaunek. Ondoren galgarri hau berekin izan zuan karlisten lehenbiziko gerrateak, eta horixe azaltzera noakizue.

Zumalakarregik eman zion bultzada Ikaragarriaren bitartez, 1835 urtearen erdi aldera Naparroa eta hiru euskal probintzi ia osorik on Karlos erregearen mendean gelditu ziran. Kosta aldeko herri batzuk, Donostia, Bilbao, Getari, eta abar, baiñan batez ere obixpo jaunen bizi tokiak ziran Iruña eta Kalaorra liberalen eskuetan zeuden. Uri nagusi hoietan gainera gudak eskatzen zuan mutilen taldeak, armen biltokia, buruzagien kuartel nagusiak zeuden, eta agindua zegon bein hara sartu ezkerre berriz karlisten tartera etortzerik etzegoela, ixpian edo salatailleen lana indartu ez zedin. Horra nundik eta nolaz gotzai eta artaldearen alkar artzeak moztu egin ziran. Oso berdinak ez izan arren orduko eta oraingo gertaerak, kontuan artu dezakegu mila bederatzi-reun eta ogeita amaseian, udazkenean, Bizka aldeko kristauak era berdinean gertatu zirala Gazteizko gotzaiarekin. Bilboko arzipreste zan Galbarriatu jauna jarri behar izandu zuan honek bere ordezko hango hartu-emanak zuzentzeko.

Horra bada azaldu zein zan konpondu beharreko koxka, eta ez uste izan hain erreza zala konponketa, ez zuten behinepein asmatu lehendabizikoan. Aurretik esandako korapilo hoiek sortu bezin laister, Gipuzkoako arziprestazgo nagusiaren buru zan Diputadua jarri zuan bere ordezko Iruñako gotzaiak. Ez zion, ordea, eskubide haundirik eman. Konbeni ziran parrokuen mugaketak egitea eta apaizik gabe gelditu ziran herriak osatzea, batez ere. Ez ahaztu gainera Gipuzkoako probintziari eta ez osoari zegokiola bakarrik konponketa hau.

1835 grn. urteko urrian asmatu zuten era berri bat. Karlisten mendean zeuden lurraldeak zuzentzearen Estella edo Izarran Iruñako gotzai jaunaren ordezko bat jartzea. On Karlosen uri nagusia zan orduan bera, eta bere agindu pean zeuzkan herri guztiekin hobekina komunikatu zitekeana. Iruñako kalonge zan Benito Moreno Jauna izendatu zuan gotzaiak lan hortarako, bainan tribunal berri onek ez zion batere indarrik kendu lehendik Iruñan zegoan Elizbarruti guztirako lantegiari. Bi tribunal gelditzen ziran, beraz: Iruñakoa Elizbarruti edo obispado guztiarentzat, nahiz karlisten edo liberalen mende egon, eta Estellakoa on Karlosen agindu pean zeudenentzat, Iruñara joateko modurik ez zutenentzat.

Ez zait iruditzen probetxu haundikoa izan zanik konponketa hau, ez ta behinepein gure artean hauzitegi horren ekinaldi haundirik gelditu artxibotan. Izan ere, Moreno kalonge jaunak karlisten lurraldeko kristauekin errex komunikatu ahal-bazitekean, ez zeukan beste horren beste eaiterik bere buru zan Iruñako gotzaiarekin. Eta honen argitasuna, askotan baita almena edo autorizazioa ere, beharko zuan noski, erabaki zail xamarrak ziranean.

Arazo hoiek Elizbarruti bakar bati begiratuaz azaldu ditugu. Gai haietan, ordea, Araba, Bizcaya eta Gipuzkoako Deva ibai-ertzeko herriak Kalaorrako gotzaiari tokatzen zizaizkan. Honek, Iruñakoak bezela, bere ordezko bat jarri ote zuan edo ez, jakiteko besten batek eman beharko du argitasuna. Ezin ukatu, hala ere, korapilo berdinak izanik bi alderdietan, behar beharrekoa izango zala han ere horrelako konponketaren bat. Eta zailtasun berdinak aqertuko ziran ordezko berri horrek bere gotzaiarekin behar zituan hartu-emanetan.

Beste bide bat aukeratu behar zan. Karlisten lurraldeko kristauak obixpo jaunaren ordezkoak eukitzea ez zirudin naikoa, gero hoiek beren nagusiarekin ikustekorik ezer ez-izatezkotan. Ordezkoak, hau da Bikario nagusiak, eta gotzai jaunak lurralde berean behar zuten izan, horrelako ondoren galgarria gertatu ez zedin. Hortarako, berriz, Elizbarruti berri baten antzeko zer edo zer sortu behar zan, karlisten mendean zeuden herri ta parroki guztiakin lurralde bat bakarria eginaz.

Ez bik, baizik lau obixpo jaunek zuten zer ikusia Euskal Herrian: lehen aitaturako Iruna ta Kalaorrakoak, eta gainera Santanderkoa Villaverde de Trucios inguruko parrokiarentzat, eta Burgoskoa Baldegobiako alderdientzat. Saltsa hoiek naikoak ez baziran, etorkizunak ekarri zezakean bestea, hau da, karlisten guda-mutilak inguruetako lurralde berriak beren mendean hartzea. Korapilo hoiek danak askatu nahi ezkeru, lehen esan dugun bezela, Eliz-barruti berri bat sortu eta danen buru gotzai bat bakarra jartzea behar-beharrekoa zirudin.

Asmaketa honek, berriz Elizaren goi-goiko mailetatik etorritako erabakia eskatzen zuan. Ezin zitekean lau obixpo jaunek alkar hartu eta danon lurraldeak zaintzeko eskubidea haietako bat bakarrari eman. Mundu guziko kristauen zaindaria danez, Aita Santuak bakarrik egin zezakean hori. Era hontan jokatu behar izan zuten bada on Karlos erregearen buruzagiek, esan dugun bilketa hori egiteko Gregorio XVI-garrenari baimena eskatuaz. Baita iritxi ere bereala, gudaosteen Bikario nagusia zan Juan Etxeberria apaiz baztandarra eginkizun hortarako izendatuaz. 1836-garrego jorraitatik uzta bitartean bakarrik irau zion jaun honi eskubide berexak. Edo obixpo ez zalako, edo ta gudaosteen Bikario nagusien mendean gogozko ez-irudituen apaiz jaunei egotea, edo ez dakigun beste zer edo zerren gatik, denbora gutxian bete zuan opizio berri hau gure Etxeberria jaunak.

Lehen aitaturako hiru asmakizun hoiek bidezkoak ez zirala ikusiaz, behar bezelako bat jarri zuten azkenik. On Karlosen buruzagi eta ministroen artean zebilen Leongo gotzai jauna aukeratu zuan oraingoan Gregorio XVI-garrenak Eliz-barruti berri honen buru izateko. Aita Santuak dionez (1836-abuztuak-23) guda galgarriaren azpian zeuden Espainiko probintzi batzuetan ezinezkoa edo heinepein oso zaila zan bai apaizak bai kristauak beren hartu-emanak bertako gotzaiekin izatea. Gudaren gora-beherak bukatu artean eta karlisten lurraldeetako kristauen onari begiratuaz, Joakin Abarca Leongo gotzai jauna jartzen zuan bere ordeko, lehendik zituzten obixpo jaunen mendetik atereaz eta haiek izandako eskubide guztiak honi erantsiaz. Batez ere behar ziran aina Bikario nagusiak jartzeko almena eman zion.

Lehen aitaturako Benito Moreno kalonge jaun bera izan zan Irunako Eliz-barrutiari tokatzen zitzaizkan parrokiatan Leongo gotzai orain Aita Santuaren Delegadu zanaren ordeko edo Bikario nagusia, baita ere Izarra edo Estellan bertan eratu honek bere lantokia. Eginkizun ugari eta era askotakoak izango zituan Bikario jaun honek 1836-garren abenduaren erdian hasi eta gerra bukatu bitartean. Hor azalduko dira gure parrokiatako paper zaharretan. Lan neketsua dala horrelako azterketa inork uste izan ezkeru, naikoa luke ezkonduetako agiriak gor-

detzen diran liburuei begiratu bat ematea. Herri haundi xamarretan batez ere, besté probintzietako guda mutilak edo bertako neskatxaren batekin ezkondu behar zutenean, Benito Moreno jaunak emango zion baimena, eta horrela azalduko da ezkontzako agirietan.

Ez zan ezer egin gabe gelditu bere aldetik Abarca gotzai jauna. Hiru urteren buruan amaika aldiz gutxienez apaiz berrik egiteko sakramentua eman zuan Azpeitin, Durangon, Estellan bai berak, bai berekin zebilen gotzai jaun portuges batek. Olio santuak 1837-garren urteko Ostegun Santuz konsagratu zituan Tolosako elizan. Sendotza edo konfirmazioa ere herri askotan zabaldu zuan. Nahiz ta gerra garaiak hortarako egokiak ez zirala batek baino gehiagok esan, ez zun alde batera utzi herrietako Mixio santuak eratzea. Ezin esango dut lan hoiak bakarrik egin zituala Aita Santuaren Delegadu zan Abarca gotzai jaunak, ez baditut garai hartako paper guztiak aztertu, ezta gutxigorik ere.

Guda-mutilen soldata osatzeko behar zan dirua zala merio, Gipuzkoar apaizekin gora behera batzuek izan zituan gure obixpo jaunak. Urtero eskari berria zetorren ta bai osatu ere apaizak diru pila ahal zuten modurik onenean. Bainan gerra aurrera zijoan eta jendea aspertzen. 1838-garrenean berreun mila erreal eskatu zituan Gipuzkoako Diputazioak. Eske berri hori probintziko apaizei agertzerakoan honela zion obixpo jaunak: baldin ahal zan azkarrena dirua bildu eta bere eskuetan jartzen ez bazuten, Diputazioari emango ziola kobratzeko eskubidea. Bildu zan apaizen batzarra, agertu zioten gotzai jaunari eskutitz harrekin hartu zuten mina, eta berreun mila erreal beharrean, eun ta berrogeitamarrekin konformatu beharko zuala esan zioten. Ta hartan gelditu ziran.

* * *

Gerrak ondoren onik ez dakarkeala hasieratik esan dugu, bainan orduan hartzen diran erabakiak pake denboretako onak izan ditezkeala, inoiz agertzen da. Hori bera gertatu zala karlisten lehendabiziko gerratean esan genezake. Hiru euskal-probintzik gotzai bakarraren ardurapean jartzea orduan beharrezkoa izanik, gerora ere on litzakeala irudituko zitzairen bai Eleiz bai Estaduko agintariei, eta gertaera horrek Vitoriko Eliz-barruti berriaren oinharri izan zala uste izan dezakegu.

Sebastian Insausti

NOTA LABURRAK

EUSKAL KULTURARI BURUZ



Ortega y Gasset jaunak kultura ziurtasun-xistima bat dala esaten du, alegia, «un sistema de seguridades frente a la vida». Gizonaren zailtasunaren ta gogortasunaren galdera larrienei kulturak ematen dizkie erantzunak.

Biziaren aurka erreztasuna bilatzen du gizonak, ta hortik dator kulturaren beharra. «Frente a las dificultades el hombre inventa instrumentos espirituales y corporales que facilitan su lucha contra aquella. La suma de estas facilidades que el hombre se crea es la cultura». Hori da Ortega jaunaren iritzia.

Bainan teoria hori euskal kulturari ezartzen badiogu ez gera konforme Ortegaren ideiarekin.

Nun daukagu euskal kulturaren erreztasuna? Nun berak emandako segurantzaz?

Nere ustez Ortegaren iritzia «burgesa» da ta bere ideiak gure egoerarako ez du balio.

Kulturarekiko Ortegaren iritzia haintzakotzat hartzerik ez dugu.

Beste konzetu bat arkitzen dugu, gure egunean inportantzirik handiena izaten duana ta kontuan izan behar duguna. Batez ere euskal kultura sailean nahi-ta-nahi-ezkoa dugu ikustea, bestela gure kultura sasi-kultura bat beste-rik ez litzake izanen. (Eta zer nahiko lukete beraren etsaiek, hori baino gehiago?).

Horainarte, kultura, segurantzaz xistima bat bezela begiratu izan da, batez ere euskaldunen artean. Gozo-gozo izateko bidea da kultura. Enplegu, kargu ta ogibiderik onenak eskuratzeko bidea da. Kultura da jendeen artean itzala emango dizuna.

Beren seme-alabak kultura erdietsi dezatela nahi dute guraso gehienek, beraz.

Bainan egiazko kultura ez da, Ortegak dion bezela, segurantza bide bat, ez-segurantza edo ziurtasun-ezaren kausa baizik. Egiazko kultura duen gizonak, besteek baino korapilotsuagoa ta nahastuagoa du bizia.

Besteek beren gezurrezko «trankilitatean» bizi ahalko dute; ez, ordea, kulturaren sasiarteetan sartu dan gizonak. Euskal kultura segurtasunen xistimariik ez da, kontrakoa baizik. Sail hortan hasten danak ez du ezer irabaziko, eragozpenik handienak bere kontra izanen ditu baizik.

Euskal kultura, erroak aizetara dituan kultura bat da. Euskal kultura egin-kizunekoa da, hau da, dana egiteko duan kultura bat.

Euskal kultura ez da besteak bezelakoa, estal-gabekoa da. Benetako kultura proletarioa. Mezpreziatutakoa ta bide guztietan desornitutakoa.

Erderaz, nahiz gazteleraz, nahiz prantzezez, esate baterako, idazten hasten danak erreztasunak oro ditu: mota guztietako hiztegiak ta enziklopediak esku eskuan ditu. Klasikoan laguntza beti arkitzen du.

Euskal kulturari «sistema de seguridades» ez, baizikan sistema de Inseguridades» deitu behar diogu.

Eta esaten duguna da euskal kulturaren meriturik handiena, gure egunetan historiaren indarra desornitutako jendeen artean arkitzean dagoelako.

Hontaz, Markusekin bat nator. Filisteiko jendearekin ez dugu deus egingo. Hoiek gure kulturari folkloriko jostailuaren balorea besterik ez diote emango.

Ezeztasunarena ta ukatasunarena da jakintzaren ta politikaren oldarra.

Zientzia sailean nundik etorri oi da aurrerapena? Ukatzetik. Geometria ez-euklidianagatik. Fisika ez-neutoninagatik. Epistemologia ezkartesianagatik, ta honela.

Gaston Bachelard filosofoak bere «Le nouvel esprit scientifique» honela adierazten digu. Ukatasunaren ahalmenean ikusten du ballorik handienetako bat.


Hitz baten: euska kulturak, bere mamian, erreboluziogile izan behar du bortzaz, zeren esistitu nahi badu, aurrean duan errealtatea ukatu egin behar dualako.

Txoraturik gaudela? Horixe esan oi dute fillisteoak. Bainan hauek hilt ta lurperatuak izanen dira laster, kultura sailean batere eginkizunik ez dutenez gero.

Hau da nere pentsaera, argi ta garbi esana. Nik euskal kultura haintzaketat hartzea hortik dator, besteak beste, hortan bertan histori-older izugarri bat ikusten dudalako.

K. S.

DEMOKRAZIAK ERREBOLUZIOA HILOBIRATZEN DUANEAN



Gaulixtek elezioak maiatzeko nahesmenduen ondorenean irabazi zituztenean **Pueblo** Madrileko egunkariak bere lehen horrian titular hau ekarri zuen: «Las urnas entierran la revolución». Emilio Romerok dixit. Euskeraren batasuna dela ta aldaketarik nahi ez dutenek demokrazia aitatu izan dute gazte saltsero ta h-zale hoiien kontra. Gehiago oraindik, Arantzazuko Biltzarraren aurretik heldu zen gutun bat h-ren etsai bate-na letra hau klasista dela ta langileek hori nola erabili ikasteko betarik ez omen dutenez, langileen kontrako dela ziona.

Nola ez oroitu hau ezagutzerakoan Gomulka ta Novotny-k Polonian eta Txekoslovakian egin zutenaz? Nazio hoietako populuek demokrazia gehiago eskatzen hasi ziranean buruzagi hauek langileak pentsalarien kontra jartzen saiatu ziran, demagogia hutseko propagandaren bitartez. Poloniakoak neurri handi batean lotu zuen, Txekoslovakia-koak ez eta Dubcek-eri utzi behar izandu zion agintea.

Dagoanari eutsi nahi dionak, benetako aldaketarik nahi ez duenak bezar, demokraziari hotsegingo dio, bai baidaki sistema aldatzen ez den bitartean dagoanak bere burua defendituko duela. Izandakoaren, eskarmentuaren, etorkizunaren beldurraren izenean mintzo dira.

Inertziarekin kontatzen dute. Gauzak segi dezatela orain arte bezala. Beldurra astintzen dute aldaketak dakarren arriskuari eragozpena jartzeko. Ez dute inolako arriskurik nahi. Lehenago hil.

Alemaniano nazi berriek bere alderdia demokrata ta nazionala izenekin bataiatu dute. Ez da batere harriztekoa.

Izan ere jendea ondo «edukaturia» eduki ezker, jendeari posibilidadade berrien demostrazioa egin dezaioketenei bidea galerazi ezker, populuak sistemari balezkoa emango dio. Gaulixtak berak agintera militarren altxatze baten ondorenean heldu ziran agintera.

Horregatik, kontserbadoreak, eskuindarrak, reaktionarioak dira delako demokrazia hoiien eustailerik handienak. Komeni zaienean noski, ez beti. Dagonari eusteko hotsegiten diote demokraziari. Hemen h-ren eta euskera baturen kontrakoek bezala.

Delako demokrazia honen eta erreboluzioaren artean bigarrena hautatu behar. Dagoanean ittotzen ari diranek ez dute beste aukerarik.

R. A.

MADE IN ISRAEL



Israelgo Barruko Ministerioak Shalit-en semei naziotasuna ukatu egin die judutar fededunak ez diralako.

Binyamins Shalit-ek, Israelgo Armadako ofiziala bera, dio, israeldarra izateko ezin ditekeala nahi-ta-nahi-ezko kondizioa izan fedea.

Tribunaletara eraman da hauzia, Hauzitegi Nagusira hain zuzen.

Ez dakit nola amaituko dan. Halere, igarriko nuke esanaz ez dutela funtsa joko. Ez baida erreza. Are gutxiago Israelen.

Erlijiotasuna ta naziotasuna bi dira, ez bat.

Pio Xlgnak., Alfonso Xllignaren aurrean, politikazko hutsegite bezela epaitu zuan «bateratze» hau. Baina uste dugu, Jose Maria Gonzalez Ruizekin, azkenengo Kontzilioaren ondoren, jokabide hau ez dala politikazko hutsegitea bakarrik, erlijiozko hutsegitea ere ba da. Israelen, politikaren aldetik ez dakit ongi ala gaizki harturik dagoan erabaki hori; ez da erreza jakiten, ikusiko dugu gero.

Erljioaren aldetik, bai, hutsegitea da. Erljio-askatasunak izan behar du nagusi, edo gauza bera beste aldetik ikusirik epaitu nahi badugu, konzientzi-libertadea errespetatu behar dala esan genezake. Askatasun hau ezin dezake politikari batek mugatu. Maitasunak ez du mugarik, esan oi da. Erljioak ez du, ezin du euki, mugarik, diot.

Hala da. Politika batek ezin dezake erljio-jokaera kondizionatu. Alderantzira ere ez. Torkemadaren garaia zahar-berritzen? Israelen, erljioak kondizionatzen du politika. Judutar erljioa duana, ta erljio hori duana bakarrik, da judutarra. Shalit-ena ez da kasu bakarra, urte batzuk dirala frantziskotar fraide batekin ere hauzi bera sortu zala gogoan dut.

Pentsatzen dut jazoera hau ez dala azkena izango. Zergatik? Ene ustez, erljio-arazo soila ez da Israelen soluzio eske dagoana. Zerk ekarri zituan judutarrak? Judutarrek ze arrazoi daukate hor egoteko, erljioarena ez bada? Eta batez ere hau: zerk bil ditzazke hor judutarrak oro, historiak ez bada? Ta ba dakigu historia hori, beste inun ez bezela, erljio-historia hutsa dala, erljioak oso-osoan sostengatzen duana. Erljioa kendu zazu, eta Israelgo historiak, urak atzamar artetik bezela, iges egingo ditu.

Soluziobidea zaila dala sinesturik nago. Halere, bilatu behar dala uste dut. Garbi ikusten dugu morrontzarik-ezaren beharra.

Zai nago, hauzi honen erabakizuna zein dan jakin guraz.

J. M. T.

«AMA LUR» eta gogoeta bat.



Pertsona zaharrek ba omen dute ohitura lehenagoko kontuetan jardutzeko eta gozatzeko. Gaurkoek ez diete hainbat ardua, ez ajola, eta, baitipait, ez zaizkie gustoko.

Gazteek alderantzira joka ohi dute, gehienetan. Atsegingarriago dute gaurko eginkizunari atxiki eta lehengoez «tabula rasa» egin.

Ba dirudi, estrainako kolpean, jokaera bi hauek erabat direla kontrario ta etsai. Sakonago begiratuaz, ordea, ba liteke besterik izatea.

Kondairak berak ditu alderdi bi hauek eta gehienik ere gizonak egin dezakeana da, alderdi batean edo bestean areago gozatzea ta atsegingintzea, eta berari beha bizitzea, ez ordea, biak elkarregandik osoki deslotzea.

Kondaira-une bakoitzak bere histori-koordinata propioak ditu, bai gizonen bizitzan nola herrien bizitzan ere. Koordinata berezi ta bedegarrik izanik ere, ordea, koordinata hauek berekin daramaten vektore-ildoak lehen-goaren hildotik jarraitzen du. Aintzinerat, bide berriak urratuaz, hori bai, bainan lehengoari jarraiki.

Hau honela, gizonak eta Herriak, nahi ta nahi ez, izandakoaren seme, edo jopu?, gertatzen dire. Gizon ta Herri horren jaurdiera bakoitzak lehen-goaren kutsu ta arrastoa daramate erraietan, ezabatu ezinezkoa.

Iraulketarik gogorreanean ere, nahiz eta iruditu vektore hildoa etena dela eta berriaren hastapenetan gaudela, guztiz besterik gerta ohi da egiazki. Hauxe da, ene iritziz, kondairari ikasi behar diogun funtsezkoena.

Ta hauxe da, baita ere, AMA LUR filmean edo dokumentalean, hobe, ikasi dudana. Gure ohiturak, folkloreak, kondaira gertakizunak oro, inolaz ere, lehenago gauzen atseginetan (zahar eta gazte, baita, zenbaiten gaitza) bizitzeko, «lilluratuta» (orain artean euskal poesian hainbeste erabili dan hitza, egungo poeta bati entzun diodanez, eta honek ere zerbait esan nahi du) egoteko. Kondaira ez da lehengoei beha ta so gelditzeko, lehendik datorren vektore hildoan aurrerantz jarraitzeko baizik. Horregatik, ez da niretzat filmaren akatsa, hainbatek erantsi nahi diotena: hainbeste gauza azaldu nahiean, ezer ez duela azaltzen. Gaitza ezik, baliogo bat luke hau niretzat. Ez dugu orain artean sortu dugun folklorea pausatu ta gelditu behar. Joanak, ondo dire joanda, eta haxe ondoen. Euskaldunak euskaldun izan behar du bai txistua-rekin mendian edo plazan eta bai egungo dantza-molde berriak dantzatzen, «bluxa»-kin eta «ye-yé» jantzita, baserriko soro-lanean eta Banka-ko eginkizunetan, bertsolariei ta Beatlesi entzuten batera...

Histori-koordinata berezien jabe —eta jopu— gera bat batean. Bada, «herriak izango duen kondaira eguneroko bizitzan eratuko duena da ta ez besterik». (AMA LUR filmeko azken-hitzak, gutxi gora-behera).

J. R. B.

Gaurko "Nota laburrak" idatzi dutenak, hauek dira: Rikardo ARREGI, Jose Ramon BELOKI, Karlos SANTAMARIA, Joan Mari TORREALDAY.

KRONIKAK

EGUNEAN EGUNEKO BORROKA

(Saiakera)

Atzo bezala egun, gizona kezkatua dabila bere askatasuna ardietsi nahiz. Egunetik egunera, bere baitatik ateratu argi izpiak barnago sarzerrat hertsatzen baitu. Udako gau epelean, izarreri begira, gorago dabila pentsaketa. Gauak iraun baleza, atsedean har lezake, ordu hoitan baitu ardurenik bake xortaxurgatzen: bainan gaua beti laburregi gertatu zaiol eta, argia hastean, gizarte barnerat, plazalat jausten da.

Hor gaindi, odola bero zainetan, bizi nahiak derabila beharrik, bazuetan ezin hezizko barne olde batek bultatua. Bizia gozatu nahiz ala, uste gabean, herioari iheska? Bat eta bertzea berdin! Aladere bere barneko mogimenduez xehetasun guti daki. Itxuren arabera biziaren alde jokutzen da: hala dio bederen, eta beharba arrazoin duke.

Bainan, gaurko gizartean, askatasunerako xendera ez zaio baitezpada ordoki! Atzo ez bezala, gizonen arteko mailak gizartean agertu zaizkigu: handi eta ttipi, aberats eta behardun, ausarkian direnak eta goseak pirutzen dituenak... Xuhurki bizitzekorik ere ez ainitzek, bertzek behargabe hoinbertze enpoiltzen dutelarik! Gainerat, bere lur pozia nork ez ote du zaindu nahi? Nor ez ote da lehiatzen aintzinagokoenganik hartu ontasuna emendatzerat? Puxantak eta aseak, nekatu gabe, patxadan bizi dirade! Gaurko gizartean iruzkia alde gertatu zaiote eta haizea epel: Itzala gozaten duenak ez daki borrokalariaen berri!

Jende xumea aldiz borroka batean sortu da, nahi ala ez, eta zerbaiterarat heltzeko borrokari behar du lotu. Jende xumea kexu sortu da, gauean, eta eskuak hutsik atzarri, askatasunik gabe. Herritarrak eta etxeok guduaren zituena! Mendi gibelean iruzkia ez zaio alde agertu, eta bere ait'amen intrizia, ohako sahetsean, ez du ahantzia. Gazterik abiatu da eta borrokalarien artean hezi. Gudularien garrasiek bihotza erdiratu dakote. Askatasuna, bere baitan eta gizartean, izerdiaren gostuz ardietsiko du jende xumeak: goiz edo berant!

Begiak dituena ohar dadiela lur zabalean gertatzen denari, gizonean artean: herrak elgarren kontra altxatu ditu, eta, zoin gehiagoka itsu batean nazione handiak abiarazi aldiz teknikak! Viet-Nam, Kurdistan, Eskual-Herria, Biafra, Txekozlobakia... herrialde zatikatuen lerrokada! Herra baino pizkorrago eta maltzurrago, intresak derabilzki nazione kapitalistak: beregaintasuna ardietsi berri duten nazioneak, askotan eta ainitz gisetarat, beren arteko tira-biran sustatzen dituztela eta beren menpean tinkatzen. Beharriak dituenak hauteman ditzala lehertuak direnen zintzurretik ateratzen direnen garrasiak: izialdurarekin elea gaitu dute eta nehork ez ditu entzun nahi. Ez bakarrik urruneko leihorretan (hala nola Indian, Hego-Amerikan, Afrikan...) bainan ere Europako eskualde probeetan, zonbat jende, lanik eta jakitaterik gabe, beren bizitza herrestan deramatenak. Azken ilabete hautako ikasleen altxatze eta elgarretaratzeak zerbait salatzen daukute miliunka beren miseriatik ezin jalgiz oldarka ari direnetaz: laborari eta langilek beren eremu eta uzinetan beren eskubideak frogatzeko ahalik ez daukate. Ipar-Euskal-Herrian, urtekal 2.000 gazte hurbil bertze norapeit lan-keta doatzi, etxeok uzten dituztela beren zorrak nola paga arranguratuak. Eta berdin Españolak eta Portugesak Frantzia ipar alderat, Alemanialat eta Suizalat... Jende xeheak ez du hauturik, bizi litaken lekurat behar du jo bere ahaide eta herritarrak utzirik. Halere beti izanen dira ikusi eta entzun nahiko ez dutenak: dirudunen alderdikoak!

Batez ere, gizarte mailkatu huntan, sasi-jakintsunek, beren goialkitik, irakasaldi okaztagarrienak hedatzen dauzkigute denak ongi doatzila sinetsarazi nahiz. Beren bulegoaren aintzinean ttottotuak, mahain garbi eta dirdiratsua ganean beren paper xuria belztuko dute letra ederrenez. Murru paratak liburu ederrez jorituak, beren biziko oren hobereenak lilluraturik iraganen dituzte, munduko jakitatea bere-tua balute bezala. Emeki-emeki helduko dira beharba orrialde meta baten apaintzerat: munduko gorabeheraz zerbait aipatu nahiz, edo gizarteko mogimendu hariak berexi nahiz, edo gizonaren barne gordeena zilatu nahiz. Zer haxetra! Bainan dena lasto balitz? Eta pindar bat aski lasto meta ederrenaren erratzeko! Zonbat liburu pila ba litaken surateko! Ketan! Eskuintiar ala ezkertiar, sasi-jakintsunak plaza gogo-

larien asmatzeak eta pentsakerak murtxatzen ditu eta, axal berri batean apaindurik, eskaintzen. Gaurko gizartean ba dira holako mamu asko, eskuak garbi, aztal-beharriak legun, borrokalarieri urrunetik begira dagotzinak! Alta, beren ustez, munduaren oldea heien beharretan da! Jakin ukan balute plazarat aterako ziren, plaza gainean baita bizia sortzen, orratzen, berritzen eta emendatzen. Beren bulegoko eremu hertsian bizitzea eta hiltzea hautatu dute. Zirritu bat bakarrik doi-doia airearentzat: hertsiegi mundua barnagotik ezagutzeko eta entzuteko! Goxatzen dira beren orrialdeen itzultzen, beren zirrimarren irakurtzen eta uste dute bertzek zerbait ulertuko dutela! Errautsak ditu fundituko eta haizeak barreatuko.

Bertze gisan mintzo dira plaza gainean borroka ari direnak. Bertze gisan ikusten dituzte munduko gorabeherak beren ogi puska plazan sorarazten dutenek. Bertze gisan entzuten dute plaza gainean eskuz-esku joaki direnek. Gizonek elgarrekin jasaiten dituzten nahigabeetan sortzen dira elgertasuna eta adixkidantza, elgarrekin irabazten dituzten guduetan. Eta ez ideiekin dantzan dabilzanean. Eta ez liburuekin bakarrik adixkidetu direnetan. Eskuak tinki lotu dira lanari bururaino helduko direlako ustean. Elgarrekilako lanak ba du bertze joerarik bakarrik eginak baino. Elgarrekin hartu erabakiek ba dute bertze pizutasunik bakarrik hartuek baino. Elgarrekin irabazi gудuek ba dute bertze ondoriorik bakarrik irabaziek baino. Baina, gizona zoin den hez gaitza bertzeekin zerbait egin behar duelarik! Ardurenik bere-bere nahiago du ibili eta jokatu, kidekoekin uztartua izaita hastio balu bezala. Gizona berkoia dela, errex da erraita, errexegi! Barnago zilatuz, nago gizarte maltzur hunek ez ote duenez hortaratzen? Beldurrak hartua sortzen zauku, eta beldurra odolean handitzen: gizarte basa huntan bere burua nola zainduko ote duen, bizi nahiak bultatzen duelarik. Bizia gal beldurrak gaitu elgarretarik berexten, sahetseko laguna etsai bilaka litakelako usteak beti kezkan atxikitzen gaituela. Alta gizarte basa hau uzkalteko eta eraikidura zuzenagoetan finkatzeko, gu baitarik behar gira ateratu eta ondoko lagunak adixkide ditugulako ustean bermatu. Bereziki, zuzenkontrako muga suerte guziak aurtikirik, naturalezko lokarriak bildu eta tinkatu: familiakoak, herritarren artekoak, endakoak, eta nazioen artekoak... Eta mundu zabalarik behatuz, oharzen gira partzunergo lokarriek asko eskualdeetako gizakieri tinkatzen gaituztela: Eskualdunek askatasunerako deramaten guduak ba du zer ikustekorik Viet-Nametarrenarekin; halaber Biafratiarrenak Txekozlobatiarrenarekin; Hego-Amerikako gertakeriek erne egoiterat hertsatzen gaituzte. Jokaera berak ez ote gaitu juntatu behar, edozoin eskualdeko edo alderdiko indarkeria maltzurra gora salatzeko eta beharorduan gudukatzeko? Naturelezko ala partzunergo lokarriak azkarkiango tinka-

tzerat doatzi gizaki ttipi eta pobreak estadu indartsu eta aberatsen itzaletik mundu zabalerat agertzeko. Afrika'n ala Hego-Amerikan bezala, kondizione berezietan bada ere, bere muga tinkiak jauzter zazko Europa zaharrari aspaldinoko urteetan menpean atxiki dituen nazione ttipien oldean. Batez ere Frantzian, Bretoinak eta Okzitaniarrak, Eskualdunak bezala, nunbaitik noizbait atzarri eta harrotu dira, eta elgarrekin asmatu dute Europa berri bat molda zitakeela. Jada deszanztralizatzea aipu da bazterretan, bainan urrunago behar dugu behatu eta, gaur asmo ditakeena, emeki-emeki obratu. Hortaratzeko, ez da dudarik, gutarteko berexkeriak behar ditugu baztertu, gure ikus-molde bereziak aztertu, eta jokaera bera hautatu, elgarrekin Europa berri eta zuzenago bat pautsuka eraikitzeke. Beharrezkoa zauku lehen-lehenik ber asmoan juntatzea, eta sinestea parte gure gain dela egungo asmoa obretan finkatzea. Bakarrik egunean eguneko bizitzekoaz arranguratua dela jende xehea, esku langilea, errex da aitortzea, errexegi! Barnago ikertuz, bere hitz bekaneri behatuz, laster ohartzen gira, ba daukala bertze arrangurari. Ezinbertzean, jakitate eskasez ardurenik, edozoin lan hartzen duelarik jan eta edan behar duelakotz, ba daki, bertze gisako gizarte batean sortu balitz, ez bakarrik aijeago biziko zela, bainan bere nortasunak eskatzen diona eskumenean zukeela. Aladere, bere buruaren jabe izan nahiak derama gizona, sortzean bizitzeak jarri diozkan lokarriez inguratua eta ez estekatua, bere jite bereziaren arabera kultura ohantzean oratua izan nahiak. Gizon guziek, bakotzak bere neurrian, bizi nahia sendi duten gune hortan, ez ote gindezakegu nolazpeit elgar junta? Bizimolde eta kondizioeek mailkatzen eta berexten gaituztela, zerk junta gindezazken zendako ez lehia elgarrekin ikusterat? Ohar gintazke naski, ardurenean eta asko gisetarat, gure burua edo ontasuna zaindu beharrez gure indar eta jeinu hobereenak behargabe enpleatzen ditugula, eta elgarren mesfidan bizi girela. Bakotxaren bizi nahia hozi-arazteko eta gizaki bezala nortzeko, elgarrekin baizik ez dezakegu ikusi nola balia dauzkagun jeinu eta aberastasunak, nola berma elgarren arteko askatasuna eragintzerat. Batzu-bertzeek dauzkagun ahalak elgarren artean indartuz nori ez zaioke goqora nolako ioera izan dezakegun gure gizarte hau bertzelakatzeko, zuzenago eraikitzeke?

* * *

Plaza gizona da biziaren alde: bere obretarik ba daki jakintzaren asmatzen, eta bere jakintzatik bere obraren hobeagotzen. Dakiena ez du zokoratzekoa, gal beldurrez, beretua duelakotz. Bizitzeari lotua delakotz eta ez ontasun goititzeari. Eta egun bakotzak jakintza berri bat

ekartzen diolaketz. Plaza gainean gogoia erne du gizonak, soa bipil eta beharria haiduru. Atzoko jakintzatik ikasten du eguneroko obra nola bete. Egungotik ikasiko du biharkoa, egun oroz bere izitearen zentzua hobeki barnatuz eta ulertuz. Hor da hor, plaza gainean, munduaren oldean hartua eta eremana, altxatua eta itzulikatua.

Ez gorabeherarik gabe! Izaiteak eta bizitzeak denen baitan jauzten baititu. Eta gorabeherak beti izanen baitira: egun trenkatuek koropilo gordeak agertzen baitituzte, egungo erantzunek galde berriak. Hola delaketz eta hola behar baita gizonaren gogoia erneagotzeko. Beharrezkoak baitzaizko gorabeherak eta koropiloak, galdeak eta erantzunak, eguna eta gaua, argia eta iluna! Plaza gainekoari hezur munetaraino sartzen zaio munduko oldea, bainan ikasten du zerbait egin dezakeela oldar horren hezteko. Borrokalaria bilakatzen delarik gogolari, ez da eneatzan plaza gainean. Lanetik lekora, bere baitaratzen dela, hor ditu, nahas-mahas, lagunekin erabili solasak: harrotzen ditu, nahasten eta baheztatzen bere bizitzerako. Ikusten du elgarrekin hasi obra eraikitzen, goratzen: lagunak eskuak ez zaizko etsai eta ahurrean dauzka tinkatuak, gau eta egun. Elgarretarik berextean, lanetik lekora, ba daki bihar ere ber odol beroak pizkortuko duela: beharrezkoak baitzaizko esku idekiak eta begiko pindarra! Bakartasuna ez zaio etsigarri: bildutasun bihurtzen baitu egunero nor bilakatu den ikusteko. Zeren ikasi du egunero dela bertzelakatzan, bertzeekilako har-emanetan eta obretan: nolako giza-lurra araberakoa ere da ardurenik gure nortasuna. Ohartu ere da laster, norbait izaiteko, bere baitaratzea beharrezkoa zaiola. Bertzelan gizaratean galtzerat hertsatua litake, asko bezala!

Bakartasunean biltzen denak, plaza gaineko gizon bezala nahi du agertu. Bilatzen duen bakartasuna ezpaita harentzat munduko oldeari ihes egiteko parada bat. Zeren, asko moldez eta uste gabean, gizarate ihes egin bailezake gizonak. Horrela bakartasuna izan ditake ezin iasanezko zer bat, nerea baitan sendi dutan traba bat, gizarate bizitzea ihesarazten dautan jaidura gaixto bat. Eta zonbat, gizarate izkinean bizi direnak, uzkur eta murriz! Herrestak! Gaurko gizarate tinkiak hortaratu dituzke. Ahanzi edo ez duelaketz nahi jakin delako herrestak bereak dituela. Edo berdin ez duelaketz nahi onartu bere eskasaren gatik direla hortaratu: eskasaren onartzea bailitake ez ongi dela aitortzea. Zonbat ez zauku guhauri ere gostatzen gure burua eri dugula aitortzea? Gizarateak bere eritasuna ez du nahi ezagutu: eraikidurak doi bat plomuan dauzka bere izan-moldea inganatzeko! Horra zertako diren eta izanen oraino luzaz jende herrestak bakartasun leizean galtzerat hertsatuak. Goiz edo berant, gizaldi berri baten oldeak eraikidura ustelduak kraskaraziko ditu eta ustei zaharrak jauzaraziko. Mundua itzulikatuz doa, jakintza eta teknikak emaiten dion bultzadan. Jadanik gizarate

berri bat sortzer zauku, zabal bezain hurbil. Gaurko gizaldeak jakinen ote du egoki zaizkon eraikiduren asmatzen? Ala, bere ahalez harritua eta izitua, porroskatuko ote zauku? Edo berdin ezazolkerian xahutuko? Handi-mandiek ba dakite aladere jende xumea antzakatzen, ele xuriz, aiseria hitzemanaz, ba dakite kexu denaren balakutzen. Nausiak beti jakin du bere mutilaren hezten! Eta hezi-arau mutilak ikasi du bere buruaz jabetzen eta oldartzen. Halere nausi-mutilen arteko tirabirak ez dira ezeztatu, handi-mandien botereak ez dira ttipitu et jende xeheak bere eskubideak ez ditu ardietsi! Bainan, beharrik, lehen bezala gaur, borroka deramatenak gogorki tematzen dira zuzentasunaren alde. Beren baitan baitute jende xumearen odola. Ezpada errex ere, ba dakite, nolazpeit eta zerbait gisaz, zuzentasunaren odolak gizarte berri bat eraikiko duela, eta jende xeheak ardietsiko bere gaintasuna. Bizkitartean gizarte mailkatu bat ez dute nahi, bakarrik gizona izan dadien gizon bezala ezagutua, edozoin tokitan eta edozoin lanetan. Bere baitan eta gizartean, gizonak gizon bezala behar luke handitu, indartu eta agertu. Bakartasuna bildutasun hiburtzen duenean, bere buruaren jabe izaiten ikasten du gizonak eta, bertzeekin dituen har-emanetan, elean eta lanean, bizia emendatzen du eta gizartea sendotzen. Lagunekilako lokarriak bere baitan hazi zuzentasunaz tinkatzen ditu eta, elgarrekin gizarteaz berexi pentsakera, egunean eguneko borrokan frogatzen. Gizon askatua, ez ote da holako norbait?.

Gaurko gizartean ba dira beharrik beren bahitara bakartasuna biltzen dutenak eta balore bat bezala goratzen. Gizartean bizi dira, munduko oldeak hartuak, eremanak, bainan ez nausituak. Plaza gainean aurkitzen diren borrokalariekin bizitzeari lotuak dira. Orok bat egiteari lehiatzen dira, zoin gehiagoka arizan gabe, elgar baitute askatuko. Eta ba dakite gizonak gizon izaiteko bere baitaratu behar duela. Ba dakite edo somatzen dute beharrezkoa zaiotela beren baitaratzea, uste gabean beren nortasunaz hustua ez izaiteko. Aladere bere egintzetan gizonak frogatzen baitu bere nortasuna. here gizon seinalea ezarriz bere obra guzietan. Bere ahalak bere egintzetan ditu ezagutzen eta ere bere indarrak izartzen: zer egin lezaken eta noraino joan ditaken, zer ez egin eta noraino ez joan. Bere neurriak ezagutuz, bertzeenak hobeki ditu onartzen. Eta ulertzen du partzunergoak baizik ez diozkala segurtatuko bere eskubideak, zuzentasuna eta gaintasuna.

Bizkitartean obrek beren alderdi inganaqarria ukan dezakete: gizonari sinetsaraztea norbait dela zerbait egiten duelakotz! Holako asko gizartean ez ote ditugu aurkitzen, harat-hunarat lasterka dabiltzanak, bizitzeko denborarik ez dutela erraiterainokoa? Zonbat urrats debaldetan, zonbat ele alfer, eta nolako denbora galtzen duten funtsik gabeko lan batzuetan! Ba dira buru bero batzu pentsakera izpirik gabe.

Zerbait egiten dute: harrabots eta errauts! Zerbait egiten dute: palabra eta sino! Zerbait egiten dute; punpe lekuaren gainean! Zerbait egi-teak ez ote ditu asko jende inganutzen: itxuren arabera zernahi egile bainan kaskarik ez!

Eta ez da etsitu behar! Aijetenerat lerra gintazke, bere baitan deraman borrokan gizona baita laster eneatzen. Eta gustuan bizitzea bilatzen du! Bizkitartean gustuan bizi izaiteak barneko arrangura ez ote dauku gordatzen: axalak mamia, irriak nigarra? Barneko arrangura eta barneko marruma: nork ez ote ditu ohildu behin baino gehiagotan? Baina berriz hor agertu dira, beti goiz edo berant agertzen baitira gizonarenak direlakotz, gureak direlakotz. Gureak ezpaginitu bezala nahi gintuzke betikotz goiti errendatu, kalte egin daukun jakia bezala. Baina goitibeheitiak eta galdeak, arrangurak eta kezkek ez dira betikotz goiti errendatzen. Gureak dira, gurekin jarraikarazten ditugunak. Gu baita sortzen eta ala direnak, handitzen eta zohitzen, desegiten eta berriz moldatzen. Ez dira goiti errendatzen, betikotz! Ba ditake memento bat ixilaraztea: memento bat! Itsasoa jabaltzen den bezala! Laster gogoratzen zauzkigu: mintzo zauzkigu eta hertsatzen gaituzte. Bilatzen dugun erantzunak ez ditu ezitzen, alde ilun bat ba daukalakotz, eta alde ilunerat barneko munduak zilatzen duelakotz, egiari buruz xendera berri bat ideki nahiz. Gizonari gune argiak ez zaizko argiegi eta gune ilunak zaizko etsigarri, bainan ez ezin garraituak. Gizonak garraitua izaitea ez du onartzen. Lurrerat erortzea, herrestan ibiltzea, haztamuka aintzinatzea: beharba; bainan garraitua izaitea: ez. Aitortzen balin badu ere zentzurik ez duela munduak, bere buruari zentzu eza nahi balin badu sinetsarazi eta uste hortan baratzen bada, barnagotik bertze dei batek bultatzen du hartu xenderan aintzina joaiterat. Gizonak garraitua izaitea ez du onartzen. Izan litake zentzordatua, garraitua balitz bezala, bainan hats izpi bat dukeno, garraitua ez izaiteko nahia agertzen du. Izan ditake estekatua mogimendu bat ezin egiterainokoan, bainan bihotza pil-pil sendi dukeno eta odola bero bere zainetan, ba duke bere askatasuna aitortzeko indarra. Askatasuna aitortzen dukeno, gizona ez da garraitua. Eta herioak ixilaraziko duelarik, betikotz, gizona ez da molde hortan garraitua. Zeren egin zezakena edin baitu, bizia maitatzea, askatasunean, eta amodioa herioari nausi baita.

* * *

Atzo bezala egun, bere baita ala gizartean, gizona hertsatua da borrokalari izaiteat. Sortu zen egunean, munduratzeko goxo bat egin zuen, inguruan haiduru zituenen erdian. Handitzearekin etxeokak

urrundu edo itzali zitzaizkon, eta lagun berriak egin ditu, plaza gainean. Eta, bere gustuz eta jeinuz, ikasi du bakotzak bere baitan daukala zorionerako gakoa. Haatik ez bere-ber jokatzuz, baina eskuz-esku bidean eta lanean aurkitu borrokalariekin. Gu baitan ditugun eragozpenak eta gizartekoak ez ote ditugu artoskiago aztertzen bertzeeri uzartuak joaki girelarik? Elgarrekin ez ote gira, tai gabe, egunean eguneko borrokari lotzen: gu baitan eta gizartean? Eta egunean eguneko borrokatik ez ote gira askatuago ateratzen? Askatua izaitzak ez ote dauku zoriona ekartzen? Zorionak ez ote dauku biziaren edertasuna gozaratzen? Egunean eguneko borrokak gizonago bilakarazten gaituelakotz, Bizia nausi agertzen da: gu baitan eta gizartean.

Manex ERDOZAINCY-ETCHART

EUSKAL GAZTEDIA TUNEL ILLUN BATEAN

Euskal gaztediaren etorkizuna goibel eta sobera beltz sumatzen dugu. Gure gaztedia erlijio zaharra zokora botatzen ari da, eta marxismo mistika batek erakartzen du bortizki. Joera hau geroz eta garbiago azaldu zaigu gure gazteen artean, istudiante, kalekume ta baserritarren artean ere. Zer esanik ez, azpi lanean azken urte hauetan erne diran mugimenduetan. Adibidez, naikoa da axaletik bederen eguneko euskal baratzeko literaturari begiratu bat ematea: Zeruko Argia, Jakin, Anaitasuna (Bizkaikoa), ta abar. Bestalde, gure gaztediak, herri aundietan bereziki, sailka utzi du Eleizarenganako hartu-eman guztia.

Hauek horrela, Urretxuako sendagile Dionixio Oñatibia jatorrak gutun hau igorri dit:

«Setenil, Cadiztik Fuenteobejunara. Ba dakit gure goraberak jakiteko zalea izaten zerala, orrengatik ba, emen bialtzen dizkitzut nere pentsakizunak.

Atsekabe ta samingarria da nere egoera, baiña benetan samingarriagoa da, euskaldun gazteak siñismena galduta ikustea.

Ogei egun batera igaroz, izketaldi luzeak izandu nituan eusko talde berrikoakin, azkenengo denboran ainbeste zarata ateratzen ari diran oiekin. Ikusi det argi ta garbi oien burubidea, eta baita buru egiten ez duten geienak, ere, siñismena galdurik, siñismenaren aurka daudela (ateismo-antiteismo).

An meza entzutera ez zuten beartzen. Talde ortakoak amarretik bederatzi, mezetara joan gabe gelditzen ziran. Norbaitek esango du alegia, gaurko eguneko kontuak dirala, baiñan beste gazte taldeekin ez da ala gertatzen, ez ain nabarmen ta gutxiore. Beraz, sail ortako giro berexiak eraginda nunbait, gazte oiek aldatu ta biurritzen dirala esan leike. Naiz ta gazte batzuek giro ortakoak ez izan, beren billeretan, zeñen iritziak aurrera? Ori ikusita dago: artaldea beti artzaiak nai duan bidetik.

Siñismen gaia ikututa gero, jo zagun gizarte giroa ikustera. Gai ontan dudik gabe, gorputz ta animaz gaiñera, filosofia marxistarekin bat egiñik daude.

Gauza bat nolakoa dan ondo jakiteko, ez da naikoa alde bat bakarra ikustea, beste alde guziak begiratu gabe.

Ta orain burura galdera au datokit: Ori komunista izatea ez bada, zer da komunismoa izatea? Oiekin jardun alditxo bat egitea naikoa da antz emateko. Oientzat, Rusiak eta Txinak egiten dituzten oker guziak, zuzen egiñak daude. Astakeriarik aundienak: millaka ta millaka «garbitzen» dituztela, ta beren arrazoiak izango dituztela esanaz erantzungo dizute. Askatasunik ez dagola olako errietan, eta erantzuna: gauzak zuzentzeko, puska batean ala egin bearra izaten dala. Hungria ta Txeko-slobakiako zapalketak aitatzea naikoa da ikusteko, arrazoi kaxkarrak nola sortzen dituzten. Itxutasun aundiagorik ezin liteke.

Gauzak orrela, ezin bat egon lasai etorkizunari buruz. Gure gazte-diak gauzak bear bezela ikusten ez ditulako, alde ortako giroak indarra artuko balu, gure erria laxter litzake siñismena galdurik, mixio lurrealdea biuruta.

Gorabera oiek, naiko buruauste sortzeko aiña ba dirala esan leike. Orrengatik ba, ez da kaltegarri izango eskutitz onen bidez gai au agertzea, aintzakotzat artzekoa baldin bada beintzat, or zuk eta zure kidekoak, nik baiño obeto ikusi ta aztartzeko.

Olako iritzi bat eukitzeko, ez al da naikoa berak argitaratzen dituzten idazti ta olerkiak irakurtzea?

Agerian dago, siñismena ta erriaren etorkizunak jokuan daudela, ta ori ez izan ume jolasa, patxada ederrean egoteko, bizkarra jaso ta eskuak patrikan sartuta.

Ez det uste ametsetan nabillenik. Nere begiz ta belarriz, neronek ikusi ta entzun ez banu, ez nuen siñistuko. Ara ba agertu nere iritzia asmo onenarekin, ta gaurkoz, besterik gabe, agur erbeste ontatik.»

Hora Oñatibia kezkausaren eskutitza. Eta, nik, arazo latza dala eta nere biotz-erdian daramakidala aitortuaz laburki ta oso gainetik erantzun nuen gutun baliotsu hau. Baino, ez naiz batere lasaitu. Guretat halako gai garrantzitsua izanik saiatu naiz pixka bat gehiago atzerkatzen eta sakontzen.

«Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu»

Rikardo Arregik JAKIN aldizkarian bota zigun «Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu» saiqa interesgarri dalakoan eta argi egin dezaigu-

kealakoan aipatzen dizuet. Gure euskaldun zaharren jainko-izuna salaturik, berdintsu dio: «atheismoa euskal gaztedian ez da probabilidade bat, neurri aundi batean dato bat baizik». Eta hots: «Baifian nun dago euskal theologia?» Nik theologia gutxi egingo dut. Euskal Herriak ba ditu ni baino theologilari hobeagoak. Atera bitez Herri honen bidera. Nik ez dut Atheismuaz idatziko. Ez eta ere Robinsonen eta «jainko heriotza» eta «kristau mundutasuna» euskal alorrera ekarriko. Oraingoz behintzat apalagoak dira nere asmoak.

Nere iritzian, gaztedi berri hau sinismena galduta ez-ezik, krisisa batean arkitzen da. Ez dakit dagoeneko poztekoa dan, baino nik ere krisisa larrialdi honi, alde batetik derrigorrean jaso beharrekoa, eta bestetik, osasungarria derizkiot. Amairu-amalau urteko neskatx mutilen krisisa garai txarra ote? Hobe izango da noski, ondo azteko, derri-gorrezkoa, eta ondo azten ari danaren agerkai bezela hartu ta bere hortan tratatzea, abestruzak bezela, izuaren-izuz, buru-estaltzea baino.

Izan ere kristautasunaren Jainkoa naturalezagaindikoa ta batpatean kondaira giarrekoa izanik, aldi baten seme egia dugu. Jaungoikoak kondairari damaizkion burubideak azterkatu ta onhartu ordez, Jaungoikoa gure kolkora sartu dugu ta zorioneko euskal oiturak jaungoikotu ditugu Jaungoiko bakarraren aurka ta aurrerapenaren oztopo-harri. Baserri kutsuko jainkoarekin oituak geunden, etxekoa zan, txoko guztiak ezagutzen genituan, eta lasai arkitzen ginan jainkotxoia eskupean genduela. Sortu dira, ordea, gizatasuna, industria erreboluzioa, marxismoa, ta abar, eta euskaldunak gure oitura ta usuario zaharrei lotu gatzazkie. Horrela gure erlijioa gauzatu ta indargabetu egin dugu. Eta Jaungoikoa sakramentalismu edo magia batean biurtu. Alegia, Jaungoikoa faltsifikatu, eta idolatria batean erori.

Idolatriarekiko tentaldiak (bere hortan lasai etzateko tentaldiak) aspaldikoak ditu gizonak. Itun zaharretik hasi ta gaur eguneko Eleiza bitarte guztian. Abraham-en bidez lur santuak eman zizkienean, bere hartan gelditu ziran israeldarrak, hango jainko-izunak gurtu eta Jaungoiko biziarekin ahazturik. Jaungoikoak eskarmentu gisa arrotzen esku uzten du erortzen Herri osoa, ta bereala ejiptotarren menpe aurkituko dira. Igarle edo profeta izendatuek astintzen zuten Israelgo Herria, bere loaletik, eta jaungoikotxoetatik atera eta Jaungoiko eragilearekin leialki joka zezaten.

Kristoren Eleizak lortu du nolabait ere giza kondairaren gallurra, eta aldaezineko giarra agertzen digu Ebanjelioa (Berri Ona) eta Eleizari agindu dion betirako babesa ta indarra. Xtoren Eleiza honek munduaren eta kondairaren argi ta gatz behar du izan. Herri bakoitzari eta belauldi bereziei moldatuko zaie bere argi ta goi-indarra aurrera-

tuaz. Baino, Eleiza bere barnean santu. Xto. bizia izanik ere, gizon kaxkar-pekatoriok osatzen dugu, eta giza-eleiz hau zenbait bider belaunaldi edo klase batekin nahasturik lotutzen da. Nabarmenak dira gaur egunerainoko gure eleiz-gizartearen konstantinismua, gurutzadak, latin edo europear eleiza, eguneko eleiz-aburgesatua, ta abar.

Hain zuzen ere, Jaungoikoa ta Xtoren Eleiza ghetto batean itxitu izan da, eta egiazko Jaungoikoa dalakoan eutsi dugu amorru bizian egoera aldakor hau ta hura. Baino, Xtoren Eleiza irikia da, eta beste ikuspegi bat damaigute Teihlard de Chardin, eguneko kristau gizazale, eta munduarekin hartu-emanen jarri zaigun Vaticano IIgarrengo Batzar nagusiak.

Auek mundu guztian gertatu badira, bereziki Euskal Herrian. Aurre-rapenaren eraginez, dalako jaungoikotxo hori egiturakin batean zahartu egin da, erortzen eta puskatzen dioa, beste egitura berria sortzen, jaiotzen eta zabaltzen ai dan bitartean. Egitura hauen tartean amildegi sakona agertu da, eta hortik bata besteaganako ikusten ditugun desberdintasunak. Gaztedi berria oso diferentea bai dator. Oraingo Euskal Herria ez da baserri kutsuko Euskal Herri zaharra. Euskal Herri industrializatu ta aurrerazale batean bizi gera. Eta munduko aide berriak biziki erne dira gure Herriaren barnean. Beraz, gure Eleizak, pikutan gelditzea nai ez badu, oitura zaharrak eta egoera aldakorrek alde batera utzi, eta naturaleza-gaindikoa dan Jaungoiko aurrerazalearekin atera beharko du gazteri berriaren bidera. Bitartean ez gaitezen izutu hauen urratsak beste bideetatik badijoaz.

Marxismuaren jipioa

Bai sozialismua modan jarri da, eta badirudi mundu osoak sozialismu aldera jotzen duela. Marxismuak, dudarik gabe, ez orobat, baino, tesis jator eta sakonak ekarri dizkio gizarteari. Eta gaurko Marxista alderditik gauza asko ikasi ditezke. Eleizari ere eman digu jipioa, gure Eleizaren esna ta osasungarri. Izan ere, itxuragabea da oraindik eleiz-egintaritzak neo-kapitalismuarekin ezkondurik, Jaungoikoaren izenean hainbeste bidegabe defendatzea: klase desberdinak, kapitalismua (explotazioa), Herri txikien zapalketa, zuri-beltzak aldentzea, ta abar. Bestalde, aztertu marxismuaren efikazia ta eragina, eta ez da batere harritzekoa, gizadia berdindu ta aurrera bidean organizatu ahalizateko marxismua modan jartzea. Honekin ez dut esanai marxismuarekin, edo eguneko sozialismu alderdiarekin konforme nagonik, ez da gutxiagorik ere.

Hala ere, Ebanjelioaren mistika ain zoragarria izan, eta Erromatik halako gizarte agiri jatorrak paperetan azaldu, baino, gizarte aldetik kristau gutxi ikusten ditugu benetako eragina ta erakunde jatorrak antolatzen.

Errusiako inperialismua kemen guztiz burukatu beharko da, baino, kristauok hobetogo betetzen al dugu, agian, Ebanjelioko aburu hura: «Lagun urkoa gehien maite du haren alde bere burua ematen duanak». Edo «Hontan ezagutuko zaituzte nere ikasle zeraten ala ez, alkarrekiko maitasunean». Camilo Torresek dion gisa, alkarraitasun eragikor eta organizatua da gaurko gizartearen premirik haundiena. Nun dago alkartasun eta gizarte konzientzia gehiago, sozialista Herri batean ala kristau izeneko Herri hauekoren batean? Nun errespetatzen eta promozionatzen dira jatorrago langileak, Herriaren sailik haundiena hauek osatzen dutela kontuan harturik?

Etorkizun beltza?

Euskal Herriaren etorkizuna ez da, nere ustez, hain beltza. Gure Herrian egun ez dira bat edo beste bakarrik arazo hauekin jabetu ta arduratzen diranak. Ezagutzen ditugu benetako marxista diranak ere, marxismoaren apostolu pizkor askoak, bai txinaldeko, bai leninaldeko... Ba dira gure artean benetako profetak, seglar zuzendariak, zenbait langile gazte, apaiz langile, ta abar. Igarle berri hauek ba dakite nundik jo behar duen gure Euskal Herriko Eleizaren berrikuntzak. Eleiza pobra, Eleiza askatua, Eleiza bizia.

Eta naiko agirian jarri dira azken bolada honetan gizonaren esku-bide ta betebeharezkoak, Langile klaseari (Herriaren zati haundienari) zor zaion begirapena, Herri baten azkerak eta mundu osoaren desarrolloak dituan balioak, ta abar. Hau dena esperantzagarri da. Eta ez daukagu gaztedi berriaren joerekin izutu beharrik. Ez da lamentazioetan gure une ta indarrak zergatik galdurik. Gure Eleizari txertu berri bat eta aurpegi berri bat ematen saiatu, baizik.

Gure inguruan ari da jaiotzen estruktura berri bat, naiko minez ta naiko estu, baino benetan jaiotzen. Ez, hala ere, tunel ilun batean, barrena, norakorik gabe, gizatasun eta benetako kristautasunean sakondu dedin, baino. Eldu da, sinismen izpirik badugu sinismena frogatzeko garaia. Egundatez Jaungoikoak Abraham-i mendiak zear abiatu ta jarraitzeko agindu zioneko hartan bezelatsu: «Fedez, jarri zan Abraham, Jainkoak agindu zionean, Bere mende, jasotzeko zan lurraldeetara abiatuaz, eta nora zijoanaren arrastorik gabe» (Heber. 11,8). Sinisme-

na ez bai da buruzko ezagupen bat, edo erlijio sentipen huts bat. Hau bai litzakeala erlijio alienatzaile ta besteratzaillea. Guk asmaturiko erlijio kutsu oro, gure kristautasun epel eta aburgesatua mahastiaren gisa erortzen ari dan honetan bakandu ta indarberritu behar dugu gure kristau fedea. Gure kristautasuna (Euskal Herriko eleiza) itxasontzia lez kulunka, eta erori beharrean arkitzen da. Hots, larrian guk ere deadar dezagun Ebanjelioan bezela: «Jauna, jauna salba gaitzatu uretan erortzera goaz da». Eta Jesusek: «Zergatik zerate bildur, sinismen kaxkardunok?» Larrialdian frogatzen da benetan sinismena, hau bai da gure sinismena batpatean benetan Xtorena, ta horregatixe guztiz eragile ta aurrerazale agertzeko ordua!

OIARTZABAL'dar Alejandro

BAROJA ETA EPIKURO

Noizean behin gure intelektualismoaren ur-loa dardar arazia izaten da eta ur-mehe xurixkaren azalean alako olaxka ikergaitzaren momentu emea senditzen ahal dugu, oiartzun ilduaren gisa kanpotik el-tzen zaigun eraginari esker. Aurten zergatik ez dakidala Epikuroen erakutsieri gure sentipena ifioiz baino ernaiago atxiki zaio. Maiatzeko ikasleen jazarpenak gure gizartearen aukeriaz ohar arazi gaituelako? Edo-ta Marcuse irakurri gabe Marcusen ideiak nabari ditugulako hor nunbait inguruko aidean?

Oker ez banabil «Oroitzapenak» deritzaion Barojaren liburu luzean berak aitortzen digu beregan antzinako filosofoek izan duten eragina eta heien artean Epikurok bereziki. (Oker ez banabil diot zeren kanoa baten bodega-pean aspaldi dela irakurri nituen Oroitzapenen oroitza-pena, orduko eta geroko langar eta lainoetz naiko lainoturik barneratu bai dira nere buru-muinetako soko ilunetan).

Epikuro lez eta espiritu maxiatzaileek diotenez, Baroja ere anti-dogmatismoaren dogmatista setati bat bai zen, bere garaiko ezarritako kulturaren arerio amorratua eta bide batez benetako kulturara irixteko behar den espiritu tenplearen jabea. Denok dakigunez kulturaren areriorik haundiena sasi-kultura bai da, eta kultura-ezaren seinalagarri-rik nabarmenena kultura hitza maizegi erabiltzea.

Bere garaiko gizarte giro ustela ikusirik, Barojak pentsatu bide zuen aldiz jopuek eta morroiek ere sasi-filosofi ofizial edo erdi ofizia-len aurka altxatzeko eskubide dutela, kritikan dotorezia galdurik beharbada, retorikoaren habilitadeak mespretxaturik: Epikuro eta Baroja ez dira dotoreak, dotoreegi iazateko errespetu gutxi azaldu dietelako agian ideiei, maixu ofizialei eta ohorez beteriko sasi-profesoreei. «Burrakaren xedea ez datza zibilizazio eta barbarien artean, sasi-erudizio eta naturaren artean baino.» Hitz hauek ez Barojaren eta ez Epikuronak dire, baina bietako edozeinek esan zezakean beste hainbeste.

Paul Nizanez Epikuron garaiari buruz dio: «Tout cela compose un

monde de grand vagabondage sans dessein, dominé par l'angoisse, où les seules relations humaines relèvent de la morale de l'état de guerre. Chaque homme doit sans fin reconstruire sa vie, et la cité est devenue, comme Aristotele dit, une cité d'esclaves et de maitres, et non d'hommes libres.» Epikuroren pentsakera gizarteari buruz ukakorra da eta ukakorra ezik erabat pesimista. Ondorio bezela gizartetik alde egiten du («qui va jusqu'au mouvement physique de la fuite» dio P. Nizanez berriz ere) eta bere baitara itzultzen ahal den salbakundea gizonagan, eta ez beste inun, bilatu nahirik. Hontan beharbada Baroja Epikuro baino ukakorrago da, ukakortasun hutsarekin konformatu zen ezin bestean, agian gure gizartea konplejoago delako eta ez bide zitzaion egoki iruditzen gizonaren zorionari bideak markatzea. Humilegia zen. Baina zeharka bederen, ipui gisa, eromantizismo lainotu batean estairik edo amets simboliko itxuran aditzera ematen digu zer-nolakoa izan ditekian gura zuen zorion apala.

Biak materialian bilatu nahi dute munduan gertatzen diran aldakizun guztien zioa. Erligioarekiko mesfidantza dute. Barojak Epikuro lez pentsatzen du jainkoek eta erlijioek gizona engainatu besterik ez dutela egiten. Eta gizonak bere angustia edo larridura nolabait menperatu behar badu Jainkoari dei egitea biderik okerrenea deritzaio hortarako.

Erreza liteke «muturrak luzatzea» materialismo mota honi larriegia delakoan eta besterik gabe. Nik alderantziz eta ateo ez izanagatik ere, Simone Weill-ek «materialismo garbitzailea» deritzaionakin izendatuko nuke Baroja eta Epikuroren sustraiko pentsakera. Maiz gertatzen zaigun lez Barojaren beste zenbait postuarekin, hemen ere alako «garbitasun xoilak» nabaitzen dugu bere jokabidean. Dana dala konprenigarriago zaigu «kondairaren sustraiko determinismoa» kausa ikukorrek direla bidez esplikatzea, ezen ez psikologikoen bidez Ortega y Gassetek nahi lukean bezela Barojaren ideiei kontrapuntuak ipintzen saiatzen danean (bere ohorean esan nezake zenbait alditan intuizio harrigarria azaltzen duela bere azterketan), «tonu altuko» idealismoari amore emanaz.

Baina beharbada bide okerretik narama puntuz-puntu paralelismo zehatz bat egin nahi honek. Ez bei dago paralelismorik, ez eta ere zenbait puntu konkretu erabat berdinek bien artean. Bakarrik alako gizon-tankera berdintsu bat edo espiritu kidetasun bat. Interesantea litzake alabainan Barojaren lanetan zehar puntuz-puntu aztertzea bere filosofia edo mundua eta bizitzarekiko postura, ez eskoletan ikasia, errotik santitua baino, bere garaiko gizarte egoerari zegokion filosofi elementala bezain bortitza. Intelektualkeriarik gabeko idazle honek inork ez bezela sentitu bide zuen filosofiaren beharra.

KRONIKAK

Unamuno arduratuta dabilzan euskaldun filosofi-ikasleentzat horra gai egokia; nere Iritzirako «unamonologia» guztiak baino gaurkotasun haundiagokoa. Behin bederen Unamunoren orru eta marruetatik alden-
durik, Baroja eta Epikuroren errebelde apal eta radikalean murgil egi-
teak osasungarri izango litzaigukealakoan nago. Iritzi horobilegia be-
harbada, baina hala ta guztiz ere Salamancako balizko euskaldun «ba-
chiller» batek hori frogatzen digun bitartean egin dezagun apostu nere
hipotesia egia dela...

Mikel LASA

AGIRIAK

LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

**Arantzazuko billeren ondorean, han ziran euskaltzainak elkaturik,
argi-bide hauek eman zituzten**

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar-beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurrerapena agertu nahi du orain.

- 1).—Ortografiaz hortarako hautatu zen batzordeak adierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez.
- 2).—H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzain-

AGIRIAK

diak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango.

- 3).—Morfologiaz, izenen erabileraz batzordeak prestatu duen aintzina-pundu nagusietan oinharri bezala hartuaz jokatu du, aditzarekiko beste aldi baterako utziaz.
- 4).—Aztertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta berrien—formaz gertatu dituen lanak, gero ere hori bide beretsutik hobeki lantzeko asmoz.

Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, gendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du, gero ere, guztion laguntzarekin, bere eginkizuna beteko duela. Hortan saiatuko dela.

EUSKALTZAINDIA

Arantzazu-Oñati, 1968-urriaren 5-ean

GIZA-ESKUBIDEEN AGIRIAREN XX-gn. URTEA OSPATUAZ, ABOGADU GAZTEEN VI-gn. NAZIO-ARTEKO BILKURA IZAN DA BARCELONAN, 1968-KO URRILAREN 8-TIK 11-RA. ETA, GEHIENEN IRITZIAK BILDUAZ, ERABAKI HAUEK ONHARTZEN DITU:

- 1.—Herri guztiek Erresuma Batuen Erakundeko Giza-Eskubideei buruzko konbenioak izenpetu eta onartu ditzatela, eta konbenio haietan dauden arauak egokitu dezatela beren legedi positiboan.
- 2.—Giza-Eskubideen nazio-arteko Hautitegi bat sortzearen beharrezkoak ikusten da, ditezken lege-austeak epaitzeko eta bere erabakiei eragindarra emateko.
- 3.—Agerian jarri nahi du, preso politikoak, lurralde batzuetan, gaur egunean sufritzen dituzten bidegabeko diskriminazioak ezeztatzeko dagoen premia.

Detentzioaren une hartatixe abogadu defenditzailearen esku-hartzea zaindu eta baita ere detentatuaren eta haren defentsa duen abogadua arteko hartuemanari askatasuna eta segetua garrantzitzeko beharrezko bideak hartu.

Preso politikoaren kondizioa legez haintzat hartzea, eta «preso soilen» baitegietan ez-baino leku berezietan bere zigorraldia, askatasunik-eza alegia, bete-araztea.

Aldez aurretiko espetxaldiak galerazi, zuzengabekeriaz luzatuak askotan preso politikoentzako.

Hitzez eta egitez gogor hartzeak oro kendu.

- 4.—Giza-Eskubideak gerizatzeko, nahi-ta-nahi-erako bide bakarra bezala, lurralde guzietan eskubide eta tribunal bereziak kentzearen alde azaldu zan Bilkura
- 5.—Bilkurak destakatzen du lege-bideak bilatu behar dirala administrazioak administrazio-eginkizunetan parte-hartze hori lege-segurtasun handiago bat dakarken errealitate bihurtu dedin.

- 6.—Sindikato-Organizaziorako OIT-ek emandako arauak, haren barruan dauden herri guzietan onartu ditzatela azentuatzen du Bilkurak, eta baita ere giza-legediak oro, saiets guzietarik, Organizazio honek eskatzen duen erara tajutuak izan ditezela.

Zeraren alde agertu zan, alegia, Alkarkizun-Eskubidea, sindikatoari dagokionez, legedi positiboetan, printzipio hauek onartuaz eta aplikatuaz gauzatu dedila:

a) Sindikato-askatasuna.

b) Klase-sindikatoak eratzeko pertsona guzien eskubidea, aginteagandik erabat aske, beren interesak gerlitzateko.

c) Maila guzietako ordezkotasuna, autaketa demokratikoaren bidez.

d) Oporraldi edo huelgarako eskubidea eta edozein giza-pertsonak egin dezaken sindikato-lana erreprimitzeko legeak oro deuseztu-beharra.

Sindikato bat edo ugari, hori interesatuei dagokien hauzia dela us-te du Bilkurak, eta, beraz, aginteak, legez, ezin dezakeala hori mu-ga.

- 7.—Herri guztietan «egoera berezia» deklaratzeari Legediari lotua egon dedila, eta, horregatixe, bai egoera berezi horren deklarazioari be-rari eta bai hori jasan behar duten giza-eskubideen garantiari gagoz-kielarik, mota guztietako gobernu-erabakiak azter ditzaketan Justi-tzi-Tribunaletara joteko edozein pertsona soilaren eskubide bortxa-ezina aseguratu dedila.

- 8.—Bilkurak gogo beroz erabakitzen du Jose M.^o Pi y Suñer eta M. René Cassin jaunei zorionak ematea, Kennedy 1968 sariagatik le-henengoari, eta bigarrenari, Bakearen Nobel 1968 sariagatik.

(MUNDO —26.X.68 - n.º 1.486— aldizkaritik Joan Mari Torrealdayk euskeraztua)

Liburuak

BIHARKO APAIZAK

—Gaurko apaizen ondoezari erantzun beharra.

—Sekularrak apaiztu ala apaizak sekularitu?

Azkeneko Eliz-batzar nagusia ezkerro, Eliz-berritzea serio hartua izan da kristau guztien artean. Behar bada, Batzar honen ondoren onena hau izan dugu. Batzar Nagusi honek ez zuan apaiz-erakundea, instituzioa, aurrez-aurre hartu nahiz bi dekretu eskeini. Hau zala-ta, han ta hemen, bakarkako keja batzuk sortu ziran baina herriaren aurrera ez zan horrelako kejarik irten. Gehiago oraindik. Apaiz ezkonduen arazoa ikuitze-koa zan Batzar honetan. Baina arazo hau ez zan edozeinen eskuen utzi behar», ez zan danen aurrean azaldu behar» eta Aita Santuak bere gain hartu zuan karga hori. Besterik gabe lehenengo kritikak sortu ziran. Batzar honek gai gordinegoeri eldu zion, dudik ez, baina hau, gai hau, ikuitugaitza zan, «tabu» baten pareko. Gero «Sacerdotalis Coelibatus» etorri zan, zoritxarrez gaxoaldian sortutako semea, eria, onhartugaitza.

APAIZEN ARTEKO ONDOEZA

Gaurko egunean apaizen artean ondoeza bat ba dagola ezin ukatu. Egunkariak honen berri noiznahi ematen digute. Jakina, apaiz guztiak krisi batean bizi diranik ezin esango dugu. Ez ta ere, herri ta nazio guztietan, ondoez on honek oinharri berdinak dituanik. Inglaterran ta Ipar-Ameriketean, Humanae Vitae-k agertuerazi du, Chilen, gizar-te-gaietan Elizak koraje gutxi jartzen dualako, Bilbaon, Eliz-estruktura berrien behar-eraginda, Parisen, berriz, apaiz-estilo berriak eskatuaz t. a. Honek dira nabarmendu diran gertakizun batzuk, agerikoak ta ortz-karraska sortu duten gertakizunak. Garbi dagonez, oso oinharri desberdinak dituzte. Halare kaso hoietan bi problema nagusi

LIBURUAK

nabarmentzen dira gehienik: alde batetik, apaiza gaurko eliz-moldeetan ezin dala kabitu ta estructures berriak eskatzen dituala eta, bestetik, bere eginkizuna hobeto betetzeko apaiz-izakera berriak eskatzen dituala.

Ixilean ta barruan dabilzan krisis ta korapiloak ez dira txikiagoak. Apaizen barruko burrukak gogorrek dira edozein kristauarenak bezela. Basteenak baino gogorragoak, esango genduke. Zenbat eta bereziagoa biziera hainbat eta gogorrago burruka. Eta ez galtezen erantzun ximple ta errez batzuekin konformatu: gaurko apaizek fedea galdu dute, eraberritzea besterik ez dute eskatzen, beren eginkizunetik aparte dabilta, leialtasuna galdu dute t. a. Erantzun errezak beti, errezegiak ,noski, egitazko ta jatorrak izateko.

ERANTZUNAREN BILA

Ezin esango dugu orain arte inork ez duala apaiz-arazoaren kezkarik izan. Apaizek leku gelegi artu dute Eleizaren barruan hauen bizierataz inor ez mintzatzeko. Azkeneke lau Aita Santuak, bakoitzak enziklika bana eskeini dio talde oni.

Estudioak ez-ezik, apaiz-taldearen barruan joera berriak sortu ziran. Oraindik urte asko ez dala, inondik ere apaizak praileen maillan nola jarri egin zan ahalegin guzia. Prai-leak hau egin dezakete ta apaizak zergatik ez? Hauxe zan joera berriak eta talde berriak sortu dituan postura bat. Gaur joera hau erabat baztertua dago. Jokaera honen oinharria hauxe zan: apaizgintzaren haunditasun ta edertasuna sendotu apaizgintza desiragarri bihurtzeko. Erakundea ona zan hauentzako. Gizonak ziran ondu behar ziranak eta gai egin.

Gaur beste erako planteamentuak datozte. Gertaeretatik Irten ta instituzioera, erakundea aztertu ta kritikatu. Planteamentu hau sanao dugu, dudik gabe, nahiz ta batzutan gordina izan. Alde hontatik poztutzeko dugu joera hau. Joera hau atera-berri diran bi liburuetan garbi ikusten dugu.

APAIZAK SEKULARTU ALA SEKULARRAK APAIZTU?

Behar bada bi hitzetan liburu baten mamia agertu nahi izatea ximplekeria bat besterik ez da. Halare bi liburu hoiien tesis, oinharrian behintzat, hontara etorriko litzake.

Duquesnek (1), apaizak gaur dauden ta diran bezela hartzen ditu. Sentidu honetan, bere lehenengo zatia otzikara sortzeko modukoa da. Apaiz izandakoen mixeriak gordinen agertzen dizkigu, nundik nora ibili diran gaurko egoerara erori arte. Batzuen batek «mixeriak» danen bistan jartzekoak ez dirala esango du. Baina ondo aztertu ta ezagutzen ez dan gaixotasun bat sendatu al diteke? Besterik gabe liburu-egileari eskerrek zor dizkagu.

Gaixotasun askoren sustrai, «mundutik», munduko bizieratik aparte egotetik dator. Orduan, apaizak mundura etorri behar du berriz ere, Hortarako apaiz-kasta autsi, talde bezela desegin beharra dago; hau erakunde, instituzio bat besterik ez bait-da.

(1) Duquesne Jacques, Demain, une Eglise san prêtres?, Grasset argitaldarian, Paris, 1968, 264 horrialde.

Zer bide hartu? Gizona gizon egiten duten giza-girotan sartu: famili ta ogibidean. Elizaren onerako apaizak ezkontzeko ta profesio bat izateko eskubidea behar luteke. Mikel Urkolak (2) beste plateamentu bat dakarkigu. Honen lehenengo galdera hauxe da: apaizgintza zer da? Apaizgintzaren muina eraskinak kendu ezkeru, zuzendaritza bat besterik ez da. Zuzendaritza ta agintaritza herriarekin lotuak joan behar luteke. Gainera hauxe da gaurko gizagi-roak eskatzen duana.

Herri bakoitzeko kristau-taldeak aukeratu behar lukete beren apaiza. Apaiz arrotz batek kristau talde batean sentidurik ez du, alkate arrotz batek herri batean ez daukan bezela. Erakunde hau, gaurko hau, kaltegarri zaigu ta aldatu beharra dago.

Apaizak ezkondua izan behar duan edo ez, lan egin behar duan edo ez t, a. galde-
tzeak sentidurik ez du. Zuzendari edo agintari bat aukeratzekoan horrelako galderik egiten al da, izan ere? Sekularrak, hau da munduan eta mundutarren erara bizi diranak eta profesio baten jabe diranak apaizten hasten bagera, zailtasun hau bere hartan bukatuko da.

Urkola jauna liburu honetan eta analisis argi baten bidez radikal agertzen zaigu. Radikal, sustrai-sustrairaino jotzen dualako eta zirt edo zarteko erabakiak eskatzen ditualako.

PENTSAKIZUNAK

Bai bat eta bai bestea ausart eta egi zale azaltzen zaizkigu. Liburu biak jakingarriak ditugu eta egileak txalogarri. Holen ideiekin bat etorri gindezke ala ez baina ezin ditugu inolaz ere ahaztu.

Biek erakundea astintzen dute, batak gaurko apaizen aldetik —apaizak persona bezela hartuaz— eta besteak herri-alde-
tik, kristau herriaren onari begiratuaz. Biek dute beren arrazoi-partea, luzarora begira, Urkolaren joera ba liteke aberatsagoa izatea baina Duquesnerena gaur-gaurkoz et giza-legeari begira ibili-errazagokoa dirudi.

Guretik ere zeozer jarri nahi genduke. Gure ustean, biharko Eleiz horretan era askotako apaizak izango ditugu: eleizgizon diranak, ezkondegabeak, profesio baten jabe diranak, giza-girotan sartua, ezkonduak, betirakoak, aldirakoak balna beti talde baten ordeko ta zuzendari.

Andoni Lecuona

(2) Urkola Mikel, Sekularrak apaiztu, Eleiz-atarian argitaldarian, Lazkao, 1968, 178 horrialde

Eskutitzak eta iritziak

Bayona'n 1968'ko urrillaren 28'n.

«EUSKALDUNOK BAT»

«JAKIN» aldizkaria

Arantzazu

Agur jaunak,

Arestian «Jakin»'en 31-32 zenbakidun iru ale artu ditut; eztakit zertarako bialti dizkidazuten iru ale olek, baña bat niretzat gorde dut eta beste biak bi adiskieai eman dizkiet.

Enuen uste azken zenbaki ori artuko nukela, Paris'eko zuen ordezkaria dan Alberdi jaunari, zuen aldizkaria geyago artu nai ez nuela esan nionetik bi illebeta joan zaizkigulako. Dana dala, eskarrik asko zuen bialtze onengatik, eta nire azken ordaintzaren epe barrukoa dalakoan nago.

Ez dut uste berriro esan bear dizuedala, euskeraz idazteko artu duzuten bi-deari buruz nire iritzia; lendik ere ezagutzen duzute, ta gero ta geyago gai orrezaz oldoztu ta gero ta okerrago deritzait zuen bide ori. Ziur nago gogo onez ari zeratela, baña nire buru kaxkar onek bide ori nola ar diteken ezin ulertu; ene iduriko, gure izkuntza au zearo ondatzeko beste egokiagorik, erdal-eskolarenaren urrengo, ez eta euskeraren arerio zitalenak ezin asma lezake. Orrengatik auxe uste bear dut: Gure Erri'an barna Itsutasun Izugarria zabaldu dala ta bertan murgildurik ari zeratela zuek ere. Guzi ori dela kari zuen aldizkaria laguntzen ez jarraitzeko erabaki dut eta barka dizaidazutela eskatzen dizuet.

Orixe jakin-erazteko bakarrik, enizuekean idatziko, nire iritzia ezagutzen duzutelako ta nire erabakiaren berri Alberdi jaunaren bidez elduko zaizuelako. Baña esandako alea irakurtzean, min oso aundia eman didaten aburu ta itz

batzuk aurkitu ditut, eta guztiarentzat —zeuentzat ere— guztiz kaltegarriak diralakoan, oietaz zerbait esan nai dizuet. Azketsi ori ere, otoi; ez dut nai zuel ez eta ifiori ere atsekaberik ematea, baña batzuetan ixillik geratzea, esan bear dana agerrera zetea baño txarrago izan ditekete. Gañera alegiñak egiten ditut nire itzetan minkor izan ditekete ezer ez sartzeko.

33'garren orrialdean Olabide'ri buruz esaten dana ez da egia, ta eztaikit nundik atera al-izan duen ori lanaren egilleak, «inguru» itza aren liburuan amalka bider agertzen baita. Ez dizuet esango egindako oker ori garrantzi aundi-koa danik; baña ez da lenengo aldiz, Olabide idazle ospetsua dala-ta, doñu ortaz abesten dana; len ere, ez oso aspaldi, orrelako beste lelokeri bat irakurri bear-izan nuen, eta ba-dirudi, orain berriz ere orrela idazten dalarik, aren izen onaren aurka uaitz bat orko giroan sortu dala. Niretzat deitoragari oso. 19'garren orrialdean Arana Goiri'ren aurka beste orrelakoren bat esaten da, naiz eta aren izena orren argi ez agertu. Baña mende onen asieran Ondarribi'n eta Endaya'n, batasunari buruz egin ziran bilkura batzuek poto-egin zutelarik, errua «sabindarren» gañean jartzen da. Ori ere ez da lenengo aldiz esaten dana; len, gaizki gogoratzen ezpazait, zuen Villasante aitak, bere «Historia de la literatura vasca» liburuan, ori bera esan zuen. Jakin ere, eztaikit bayetza orren ofiarria nun ukan duten iritzi ori eman dutenek. Baña arestian «Arana Goiri'ren Lan Osoak» dakartzkien liburu bat argitaratu da; bertan, esandako billera aietan gertatu zana zeatzez irakurri dezakegu, ta irakurtze orren ondorioaz ezin esan ditekete poto-egite aren errua Sabin'ena izan zala, alde ontako beste jaun batzuen baizik. Alakotz, uste dut egokia izango litzakela, lenengo iritzia dutenek, arazo ori berriro begira dezatela, egia nun da goen ikusteko.

Bi euskaltzale aundi aien aurka esandakoa, gure egun auetan zabaltzen ari dan iritzi-jokerari dagokiona dugu oso-osoan, eta ain zuzen orrenatik aipatzen dizuet. Egitan, ba-dirudi, Arana Goiri jaunagandik asi ta Orixe, Zaitegi ta Ibinagabeltia jaunenganaño izan ditugun idazle on eta Jator guziak bazterrean utzi nai dala, euskerarentzako kaltegarrienetakoak izan bailiran. Eta, bereziki, esandakoak eta beren aldiatako idazleak euskeraren alde ifiorik baño lan milla bider aundiagoa egin dutenak izan dira, enurarik gabe. Enaiz ni orrelaxe uste dudana bakarra; beste batzuei ere orixe bera entzun eta irakurri diet, eta gaur bertan jaso dudana «Zeruko Argia»-ren azken zenbakian, ezagutzen ez dudana Gaztaña-ga idazleak, Orixe ta Lizardi'ri zor zaiena aitzu ez dedilla eskatzen du.

Eta guzti ori ez da naikoa oraindik. Esandako zuen aldizkari-zenbakiaren 11'garren orrialdean, gorroto-usaya darioten itz zakarrak datozkigu. Noski, itz oiek norenak diran diñozute, baña zuen aldizkarian agertzen dira, Arantzazu'ko Ama Done'aren ofietan egindako aldizkarian. Ez dut uste itz oiek, guzian Ama Done orri ohore aundirik emango diotela; bai, ostera, gure Erria'ren zear erralanean ari diran mari-gaizto zital guziei barneko barre iguingarria egiteko zio egokia ematen diotela. Ez ote zan agertu Arantzazu'ko Ama txit Donea, ain zuzen, euskaldunen arteko gorrotoa ezabatzeke? Zertan ari gera, bada, jaunak? Barkatu, arren, baña mingarriak benetan esandako itzak niretzat, eta mingarriago, maitasunaren beraren iturrian argitaratu dirala ikustea.

ESKUTITZAK ETÀ IRITZIAK

Beste galdera bat amaitzeko: 1956'garrenean or bertan «Euskaltzaindi»'k beste billera batzuk egin zituen, eta orduan egokia iruditu zitzaidan aolku bat eman zuen. Zenbat dira aolku ari jarrai diotenak?

Azketsi, berriz ere, esandako guzia, bai ta bera irakurtzeko galdu-erazi bear dizuedan aldia ere. Gutxienez zuen aldizkaria artzean ez jarraitzeko ditudan zioak argi ta garbi agerrerazten dizkizuet.

Eta otoi dizaigun guziok Arantzazu-ko Andere Miren Doneari, guri, gure izkuntzari ta gure Erri'ari errukitsu izan dakigun. Adei-onez beterik.

Urrestarazu'tar A.

Zuzendariaren erantzuna

Milesker, Andoni, zure iritzia argi ta garbi erakusteagatik. Besteen Iritziak gure segurtasunetan segurtasun osoa ez izatera eraman behar gaitu gutxielik, gure bideak aztertzerà ere, eta, baldin behar bada, lehengoa ukatuz bide berri batetik abiatzera.

Ikutu dituzun pondurik gehienetan ez nator zurekin bat. Eta nik ere, zuk bezaïn argi ta garbi, ene iritziak azaldu nahi nizkizuke.

Lehendabizi, eskerrak eman beharrean arkitzen naiz gogo onez ari gerala uste duzulako. Gaur egunean, ez pentsa, ez da errez nor dabilen borondate onez ta nor gaistoz lakiten. Onez gabiltzala gu uste duzu: ez dala aurre-iritzi ustel bat oharrazi nahi dizut.

Halere, nahizta borondate on hori gure baitan ikusi, gure eginkizunetan ezin dezakezu gauza onik nabari. Zure hitzak ez dirala goxoak, gero! Euskerak etsai zital asko zuela ba nekian, ez nekiana zan gu geu ginala zitelenak! (Admirazioa, nerea da). Pentsa zazu: ez al duzu gehiegitxo esan?

Harriturik naukazu. Harriturik, harritu egiten zeralako zure garaiko ta gogoko idazle batzuei gaurko idazle batzuk zuk nahi zenukean begirapenik ez dietela-ta. Gaurkoentzako zure iritzia biquinagoa ez dalakoan nago. Bestalde, gure aldizkarian azaldu diran zenbait iritzik «gorroto-usaya» omen dakarkite. Gure euskerari buruzko zeure iritziak ez duala «lore-usairik» ametitu beharko duzu. Gaitezen onhartu ditugun printzipioen jarraitzaile zintzo, nola faboretan hala kaltetan.

Bide bat daramakigula ere ba diozu. Okerrezko bidea, noski, erdal eskolarena- ren urrenqoa. Ziur zaude Andoni, ziurreqi. Pondu hontan nekez lar ditzazkegu muqa berak zuk eta nik erdal joera hori non hasten dan jakiteko. Uztagun, bada, hori, ta noan aurrera zure esaeraren eskutik. Bide bat daukagula guk? Baina zeintzuk gera GU? Ba ote dago «gu»-rik? Izatekotan ere, «gu» horren le-

hena ta oraina ez dute pertsonak berek egiten. Hau jakin beharra dago, ta jakin behar zenuke ere azkeneko zenbakian (31-32) 33 idazlek esku-hartu dutela. Zuk uste duzun (edo nahi zenukean) bezin hertsiki mugaturik ez gaude. Bidea ere uste duzun baino zabalagoa dugu. Ba al dakigu zein dan? Zuk pentsatzen duzuna ez da, hori seguru. Besterik da: funtsari gagozkiolarik, jakintza; eta hizkuntza-alorrean, euskera bateratua, Euskaltzaindiaren esanetara, Hau den hau, helburu garbi bat begien bixtan dugula, alegia, egunen baten gure hizkuntza, aziaz ta eziaz, kulturaz jabetu dan Herri baten tresna egokia izan dedin.

Aipaturiko baldintza hauek betez gero idaz dezatela euskera onaren monopolioa bide duten hoiek gure aldizkarian, eta, horrela, «erdal kutsu» gutxiako izango dugu. Bidezko da.

Beste pondu bat. Bateko, zure iritziz, «gorroto-usaya» darie zenbait hitzei. Pentsatzen dut, zuk gurekin egin duzun bezela, han ere ez dala hain zaila subjektibotasuna ta objektibotasuna bereiztea. Testuan bertan ere, nolabait, aditzera ematen dan bereizkuntza izaki, batez ere. Eta, gainera, hitzak ezin ditezke soilik har, testuinguruan baino. Irakurtzeari jarraitu besterik ez duzu behar **hala ere, indarkeria ta legekeria ez du inork erabili nahi, arazo hontan diogula ikusteko.**

Besteko, eskandalizaturik zaude «Arantzazu'ko Ama Done'aren oñetan egindako aldizkarian» gorrotoari atea zabaldu diogula-ta. Zure barne asaldatu hori baretzeko esango dizut Arantzazun barik Tolosan bizi naizela, ta hemen zuzentzen dudala aldizkaria. Ez dezagun, mesedez, arazo desberdinak nahas.

Eskuarteko hauzia, galdera bat eginaz amaitu nahi duzu. 1956-garrenean Euskaltzaindiak emandako zure gogoko aholku hari jarraitu diotenak zenbat dira? Ez dakit, baina ez bazaitaion kasurik egin, jokabide okerra iruditzen zait.

Historia, irakaslea da, ikas dezagun. Gaur ez da beranduegi, has gaitezen.

Oraindanik beintzat jaramon egin dezaigun Euskaltzaindiari. Ondorioak berealaxe ikus zenitzake, alegia, zein errez, guzcion onerako, alkar bategingo dugun, zure idazkiaren izenpuruak dakarren «Euskaldunok bat» egia bihurtzen dalarik.

Gai hau luzatzeko asmorik ez dut, ez eta aurrerantzean hontaz mintzatzekorik. Beste harek bezela buka dezagun: «irizkide ez baina bai adiskide» Agur.

Joan Mari Torrealdai

XABIER KINTANARI TA IRAKURLEEI

JAKIN aldizkarian, 31-32 garren alean, Xabier Kintanak izenpetuta lan bat irakurri det: «Parapsikologia: zientzia berri hori», izenduna, ta, guztiz begiko izan zaidana. Berri usai aundikoa, gauza gaitza gaitza izan arren ulerterraza, eta euskera, zientzia bideetatik diaramana. Bai dira zergaitirik asko idatzian bat atsegifia izateko.

Egilleak dio bertan: «Irakurleoen datoak ballotsuak litzazkidake eta haintzat artuko nituke pozik».

Au irakurri detalako ausartu naiz Parapsikologia'ra nere ondar aletxoak ekarten, JAKIN'en irakurleak, eta batez ere Xabier Kintana'k ontzat artuko didaten ustez.

Eta beste gabe bal noa nere arlra.

Ni, 1911'g. urtean Bizkai'ko erri polit baten (Ea bere izena) irakasle nintzan, neska-toen ikastolan, eta nere aizpa txikienakin bizl nintzan.

Gau batean, ames egin nuan, Zumaya'ko mutill bat, geure kalekoa, (Periko Uribe-xberria) bi edo iru urte lenago praille joana, prailletatik irtenda etxera etorri zala. Nik eta nere sendiak, mutill onekin eta berlakin, artu-eman aundia genduan.

Goizean, orrazten ari nintzalarik esan nion nere aizpari:

—Mariatxo, ez dakizu, bart zer ames egin detan. Paula'neko Periko, konbentutik etxera etorri dala.

—Ene! Ondo pozik joan zan ba.

(Nere aizpa oraindik oroitzen da gauza onetzaz.)

Ez ark eta ez nik, ez genion kontu oneri geiago jaramonik egin, eta ni beti bezela, ikastolara joan nintzan.

Eguardian etxeratu nintzanean, an zegoan nere amaren eskutitza, Zumaya'ko berri danakin. Danetan nabarmenena auxe: Paula'neko Periko, konbentutik etxera, gaxorik etorri zala.

Gaitz aregaz ill zan gixaxua, denpora gutxi barru.



1949'g. urtean Burgos'ko erri txiki batera joan bear izan nuan irakasle, Gorliz'ko Sanatorio-ikastola utzita, eta an sel urte ta erdi egin nituan. Ikastola artan jaso nuan esperientzi garrantzitsu bat esan bear det.

Bein baño gelagotan gertatu zitzaidan ume alekin gauza au. Nik ume bati gauza bat galdetzean, erantzuna gogor pentsatzen banuan, alegia, arreta aundiz, eta beste pentsakizunari lekurik eman gabe, umeak, neuk pentsatzen nuan itz beurakin erantzutea. Neskatxoakin ez zitzaidan ifioiz gertatu: Beti mutikoakin.

Eta orain dator arrigarriena. Bai nuan ikastolan mutiko bat oso atzeratua, arpegi, begiratzeta, ta buruaren forman, urrutira lgertzen zitzaion gixaxua zer zan. Pedagogia'n deficiente mental esaten zaioten orrelakoa.

Egun baten etorri zitzaidan lenengo aldiz Inspectorara. (Ez zait ondo iruditzen, bere ize-na emen ipintea). Austerri eguna zan ain zuzen. Ogetabi ume ziran guztiz, eta len esan detan mutiko, buru akatsdun ori, danetan luzeena zan, da, zutik egozalarik, beste

guztiak baño nabarmenago ikusten zan. Au aukeratu zuan bada Inspectorak'k lenengo galderak egiteko. Izutu nintzan, bai nekialako gauza onik ezin zeiklela mutiko ark egin.

—Gaur zer egun da? galdetu zion, eta mutikoak beriala:

—Astezkena (miércoles) (Ik jakiteko ez dek gutxi esan nuan nere baitan).

Eta Inspectorak'k berriz:

—Bal, astezkena da, baña ori izena da, eta gaurko astezkenak bai du bere apellidua. Nola da gaurko egunaren apellidua?

Mutiko ark galdera ori ezin ulertu zeikela, bai nekian (agian, ez beste askok ere) eta zer astakeri esango ote zuan bildurrez zearo urduritu nintzan. Baña, nere naimena ezertan sartu gabe, makina baten moduan asi nintzan pentsatzen «de ceniza, de ceniza, de ceniza, eta nere ikastolako deficiente mental ark, bigarrenez galdetu zionean,

—Qué apellido tiene el día de hoy?

—«De ceniza», erantzun zuan ben-ben.

—Oso ondo, oso ondo, esan zion Inspectorak', eta ez zion beste gauzik ezer galdetu.

* * *

1946'g. Bilbao'n bizi nintzan, nere koñata baten etxean. Senarra, Leon'en neukan.

Gau baten ames egin nuan, karrika zabal batean erori egin nintzala, ta, neure burua, parol aundi baten ondoan, beia jota luzeluze ikusi nuan. Euria egin berria ta, kalea dana bustia zegoan. Ni, soñean abrigo berria nuala, altza nintzanean, alde bat dana bustia ta kaleko basagas oso zikindua ikusi nuan. Nere abrigo berriaren paraerua ikusteak esnatu ninduan noski, eta ez nuan poz txikia artu, oean nengoala igertzean, eta nere abrigo berria, armarioan legor eta garbi zegoala noski.

Zer ames txarra izan dan auxel pentsatu nuan, da, beriala loak artu ninduan berriro. Andik bi edo iru egunera, nere koñatakin joan nintzan Deusto'n dagoan Universidad del Trabajo delakoa ikustera. Azkenez eleiza ikusi genduan eta erten.

Amarrenbat eskillara arrizkoak zeuden eleizatik urteeran, da, nik ez dakit nola, ez Jesus eta ez Amen, nere errian san oi dan bezela, bigarren eskillaratik be-beraño erori nintzan eta arpegiak lurra jo. Lurra ez, arri koskorak balzik, eta euria egin berria noski, ta dana basatza bat zalako, arpegia basetan murgildu nuan, eta nere abrigo berria dana ondatu. Amesetan ikusi nuan bezelaxe.

Nere koñatak, lenen aurkitu zuan Sendategi batera eraman ninduan eta, arpegia esparadrapoz beteta, kristauen itxura gabe (au ere nere erriko esaera bat da) jo genduan etxera berandu batean.

Arrezkero, beste ames gaizto bat egiña naiz. Trenean ni joan eta eldu giñan geltokira. Ni asi nintzan nere gauzak artuta erteten, eta, danbal kotxien eta andenen tartera erori nintzan. Bitarte aundia zegoan, izan ere bien artean. Nik ames aura egin nuan arte, ez nuan ainbeste tarterik ikusi iñungo geltokietan. Gero bal, Plentzia'ko trenean ikusi ditut, eta tren orretan sartu edo erten egin bear dedan bakoitzean, oroitzen det ames gaizto aura, eta bildur ikaragarri bat egiten da, nere izate guztiaren jabe.

* * *

ESKUTITZAK ETA IRITZIAK

Orain esatera niJoana 1907'n, urtean gertatu zitzaidan Bilbao'n. Loraila'ren aurrenengo egunak ziran, illaren amabostean asi bear zuten Kursoko azterketak. Karrerareñ azkenengo urtea nuan, eta azterketak bukatutakoan, Reválida esaten yakon azkenengoak.

Nik, karrera elementala, Gipuzkoa'ko Normal Eskolan egin nuan Donostia'n eta karrera superior egitera Bilbao'ra joan nintzan ango Normal Ikastetxera. Donostia'ko Normal'etik amar ikasle joan gifañ Bilbao'kora.

Ostatuz, ni eta nere lagun bat (Klarita Arana bere izena, oraindik bizi da, donostiarra, ta Bengoetxea kalean, 3g. zenbakian, 4g. etxe-oñean bizi da) Heros kalean, moja karmelitak zeuken Kolegioan geunden. Baiña ostatuz bakarrik, ikaskizunak ofizialki egiten gebazan-da. Klaritak eta biok, gela batean egiten genduan lo, oe banatan, gabeko maitxo bi eta gelako atea bitarte ziralarik. Klarita'ren oean zegoan, arglaren giltza.

Loraila'ren asierako gau batean (ez dakit zer ordu zan) bildur aundi batekin esnatu nintzan, baiña amesik gabe. Lo gogorrean nengoala, bat-batean esnatu, eta adi-adi jarri nintzan, nere inguruan zerbait jazoko ote zan edo zer-edo-zer gertatuko ote zan bildurrez. Arnasa estutu zitzaidan, eta ill bear ote nuan pentsatu ere bai. Eskapularioari eldu nion, da baita Ama Birjiñari ixill-ixillik laguntza eskatu ere. Ez neukan ordea adorerik ez oetik jaikitzeke, ez lagunari deitzeko, ez eta zirkiñik egiteko ere, izuak menperatuta nengoañ da. (Gaur ere ni bildurtia naiz, eta gaztetan txit geiago). Onetan entzun nuan abotz bat, argi ta garbi, erderaz, auxe esan zuana: «No terminaréis la Reválida, no terminaréis la Reválida» bi bider (pluralean).

Abotza gizonezkoana zan, ala emakumeana zan ez nuan igerri.

Ausardi pixka baten jabe egin nintzanean, emeki-emeki, (mojak ez esnatzearren) deitu nion lagunari: Klarita! Klarita argia pixtu ezazu! Baiña Klarita lo seko zegoan, da, ez eustan erantzuten.

Nik berriz ere apur bat errimeago: Klarita! argia pixtu ezazu!

Noiz-edo-noiz nere laguna esnatu zan eta pixtu zuan argia.

—Zer dezu emakuma!

Esan nion jazo zitzaidan guztia eta erantzun zidan:

—Amesetan izango zan ori.

—Ez, ez, esna negoan, lentsogotik esnatuta, oraintxe nagon bezin esna.

—Ni logure naiz eta biar goizean esango didazu. Eta argia itzali zidan.

Loak ez ninduan geiago artu. Pentsakizun auetxek uxatzen eustien loa. Zer dala ta ez det nik Revalida amaitu bear? Ikastorako ikaskizun guztietan nota onak izango nituan ziurtasuna neukan. Eta Revalidarik ez detala amaituko? Zein ikaskizunetan suspendu bear naute ba? Ai, ene bada! Ez ote da izango Prantzes'eko Irakaslearen zerbait? (Eman esango det zergaitik nuan jaun onen bildurra).

Iru illabete lenagotik, Prantzes'eko Irakasleak nai izan zuan, Paris'eko egunkari «La Matin» klasean irakurteko, (ez dakit iru illabeterako edo baterako) ikasleaok arpi-deduntzea. Denok baietz erantzun genion.

Biamamonean «La Gaceta del Norte»n agertu zan Irakaslearen aurka Jantxo bat. «Le Matin» frankmassolena zala, eskandaloko kronikari leku aundia ematen ziola, Erlijoaren aurkakoa zala eta abar esanaz.

Egun berean Normal'eko Zuzendari'ak deitu zidan bere despatxora eta galdetu ea zer proposatu zigun Prantzes'eko Irakasleak, eta nik esan nion dana, zana-zan-bezela.

Urrengo egunean txit aserre etorri zitzaigun Irakasle jauna eta, esan zigun bere zergaitiak didaktiko utsak izan zirala, eta, zer naigabe aundia artu zuan bere ikasle batek traizio ori egiteaz. (Nik ez nuan iñoiz uste izan suelto aura ikasleak egiaña zanik. Neuk ez nuan beintzat egin).

Klasea bukatu zanean lagun batzuek esan zidaten «traizioa» esan zueanean nerl begiratu zidala. Ez nuan sifistutu.

Iru illabete bai ziran au pasatu zala, nik ez nion nere aurka ezer igjerri Jaun ari, arrezkero iñoiz. Beti bezela tratatu ninduan; lagun batzuek ordea, noizik beinka esaren eusten: «Azeptitia, Prantzes'eko Irakasleak begitan artu au», baiña nik ez nuan sifisten.

Istorio oni milla bira eman nizkion nere buruan gau artan eta, Iritzi auxe atera nuan: «Orra nere galdua! Suspenso emarigo dit eta nik ezin Revalida'rik egin. Baña Klarita ere barruan dago, biontzat izan da ta: No terminaréis, abotzak argi ta garbi esan du. Pluralean». Goizean jaiki gifianean, esan nizkion kontu auek danak Klarita'ri eta, onek azkenez ezan zidan: «Baretu zaitetz, Julene, amesak ames dira, Kalderon'ek esan zuan bezela».

Bukatu genduan Ikastaroa. (Dn. Manuel'ek Sobresaliente eman zidan Frantzes'ean). Ez nuan bada Reválida ez amaitzerik, eta berau ondo preparatzeko, Donostia'ra joan nintzan, Klaritak eta biok alkarrekin ikastearren (liburuak erdi bana erosiak genitun). M. Uranga izena zuan Donostia'ko lagun batek (orain denbora gutxi illa da Donostia'n), esan zigun, berak jakingo zuala ziur Revalida'ko azterketak noiz asiko ziran, da berak esango zigula, ta danok batera joango giñala Bilbao'ra. Baietz ba, ta pozik. Klarita ta biok ari giñan zintzo Revalida antolatzen eta zortzigarren egunean emen datorkigu Uranga, Bilbao'ko Normal Ikastola'ko idazki bat eskuan zekarrela. An esaten zion Idazkari'ak, Donostia'ko Normal'etik Bilbao'kora joan giñan ikasleok (guztitara amar) ezin gindekezala Revalida'ko azterketara aurkeztu, gure espedienteen oker bat zegoalako. Oker au zer zan esateak, lan au luzeegi egingo leuke eta, ez lioke bere mamiari ezer geituko.

Orra nundik eta nora egiztu zan nik entzundako abotzak esandakoa egitea eta gaiñera **pluralidadea**.

Nik ez dakit ziur fenomeno au parapsikologian sartzen dan, baiña Xabier Kintana'k jakin dezake.

Telepatia'tzaz beste egun batean idatzi nezake. Gaur auxe bakarrik diot: Nik auskeraren alde asko erabiltzen detala.

Julene Azeptitia

Oharra: Ohar hau egiteko aholkatzen digu, alegia, H barik datorrela idazlana ez dakialako ondó nun jarri behar dan, h hori.

OHARRAK

Azaroak 1-2-3, hiru egun hauetan, Euskal Liburu ta Diskoen Azoka antolatu du, hirugarren aldiz Durangon, Gerediaga Alkartean.

Ta Azoka hortan sari batzuk izan dira, irizpide hauek erabilirik: liburua-ren barnea, azal-itxura, gaurko gizarterako eragina, argitaltzaileari pozgarri bat ematea, eroslearen arrera, inprimatzeko era. Ta epailariak, hauek izan ziran: Balendin Lasuen, Juan Ramon Urkijo, Jon Bilbao, Nikolas Alzola Gerediaga, Anjel Zelayeta, Bittor Kapanaga, Jose Luis Lizundia.

Lau sari ziran ematekoak, bi euskal liburuentzako ta beste bi erderaz egindakoentzako.

Euskeraz egindakoetan, 1go saria Xabier Leteren liburuak eraman du: «Egunetik egunera orduen gurpillean», Hegosak argitaratua. Ta aipamen berezia, Jose Estornes Lasaren «Erronkariko uskara» liburuari eman zaio, Auiamendik argitaratua.

Erderaz egindakoetan, 1go saria «Análisis de la Economía Vizcaína y su proyección 1968/71» liburuak hartu du, «Servicio de Estudios de la Cámara de Comercio, Industrial y de Navegación de Bilbao» delakoak eraturta argitaratua. Ta aipamen berezia, Mikaela Portillok egin eta «Caja de Ahorros Municipal de Vitoria»k argitaratutako «Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria-Rioja Alavesa» liburuari.

AURTENGO «TXOMIN AGIRRE» SARIA TXILLARDEGIREN ELSA SCHEELLEN NOBELARI

Euskaltzaindiak bi urterik behin eratzten duen «Txomin Agirre» izeneko nobela saria, aurtan, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegí» idazle famatuari eman zaio bere Elsa Scheelen izeneko nobelagatik.

Juraduko, Gabriel Aresti, Salvador Garmendia eta Ibon Sarasola izan dira.

Zazpi nobela presentatu dira. Beretariko lau biziki onak juraduaren iritziz, eta Beste Izakia eta Igesa izenekoan aurretik gelditu da Elsa Scheelen «Txillardegí»rena.

Sari hau, urtero Bizkaiko «Caja de Ahorros»-ak ematen dituen 10.000 pezetarekin egiten da, urte batean «Txomin Agirre» nobela saria eta bestean «Toribio Alzaga» izeneko teatru saria. Beraz, aurtan genduen «T. Agirre»-rena, eta hain zuzen ere, aurtan, Euskaltzaindiaren urre-etzetai direla ta, «Caja de Ahorros»-ak ematen duenarez gain beste hainbeste jartzten du Euskaltzaindiak bere kutxatik eta 20.000 pezetako saria da.

Zorionak, «Igara». Gure lankide zeranez, pozgarriago da guretzat zure sari hori.

JAKIN 31-32 zenbakian, Salvador Garmendiaren lanaren 34 horrialdean, huts bat dago, alegia, Mitxelenarena dela iritzi bat esan ditekela, Mitxelenak kontatu besterik egin ez zuelarik. Hain zuzen «Luis Mitxelenak zigun» dion tokian, «Luis Mitxelenak kontatu zigun» behar du esan.